


eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

IRAUNKORTASUN MEMORIA 2018

**Iraunkortasunaren arloko
zuzendaritza**

www.ehu.eus



eman ta zabal zazu



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

Aurkibidea

1. SARRERA	4
2. UPV/EHUKO IRAUNKORTASUNEN ZUZENDARITZA	5
2.1. Helburuak.....	5
2.2. Langileak.....	6
2.3. Kontaktua eta kokapena.....	7
3. 2018AN GARATUTAKO EKINTZAK	8
3.1. Unibertsitatearen kudeaketa iraunkorrean aurrera egitea	8
3.1.1. Hondakinak.....	8
3.1.2. Energia.....	14
3.1.3. Mugikortasuna	15
3.1.4. Erosketa eta kontsumo arduratsua.....	17
3.1.5. Ingurumen eragina ebaluatzea.....	19
3.1.6. Ikastegietako konpromisoa ingurumenarekiko.....	20
3.1.7. Beste batzuk: ekitaldiak eta biodibertsitatea	22
3.2. Lankidetzaren sustatzea unibertsitate-erkidegoan UPV/EHUk dituen iraunkortasun-erronkei aurre egiteko	24
3.2.1. Campus Bizia Lab Programako Lehen Deialdia (2017/18 ikasturtea)	24
3.2.2. Campus Bizia Lab Programako Bigarren Deialdia (2018/19 ikasturtea).....	28
3.2.3. BerrAktibatu+ Unibertsitateak programa	30
3.3. Garapenerako Unibertsitate Lankidetzaren bultzatzea	34
3.4. Unibertsitate-erkidegoari prestakuntza ematea eta lekuak eskaintzea, iraunkortasunaren esparruan proiektu berritzaileak garatzeko	35
3.4.1. Ikasleentzako prestakuntza.....	36
3.4.2. Irakasleen prestakuntza	40
3.4.3. Berrikuntza proiektuak iraunkortasuna hezkuntza-curriculumean txertatzeko	41
3.4.4. Administrazio eta zerbitzuetako langileentzako prestakuntza.....	42
3.4.5. Iraunkortasunerako Hezkuntzako sareetan parte-hartzea	43
3.5. Ikasleen parte-hartzea sustatzea elkartasunezko eta garapenerako lankidetzako ekimenetan	45
3.5.1. Garapenerako Lankidetzaren inguruko Lan Praktikak eta Gradu Amaierako Lanak egiteko Programa.....	45



3.5.2. Gaztenpatia programa.....	47
3.5.3. Ikasleek erakundeetan boluntariotza-jarduerak egiteko gauzatu beharreko kudeaketak.....	51
3.5.4. Boluntariotza auto-kudeatutako ekimenak bultzatzea eta sostengatzea.	53
3.5.5. Boluntariotza sustatzeko beste ekimen batzuk.....	55
3.6. Errefuxiatuei laguntzeari dagokionez UPV/EHUK hartu dituen konpromisoak garatzea	57
3.7. Hitzarmenak sustatzea eta iraunkortasunaren eta garapenerako lankidetzaren esparruan lan egiten duten entitateekiko lankidetzaren bistaratzea.....	65
3.7.1. Hitzarmenak.....	65
3.7.2. Iraunkortasunaren eta garapenerako lankidetzaren arloan lan egiten duten entitateekin batera egiten dugun lana ikusgarri egitea	67
3.8. Nazio Batuen 2030 Agenda unibertsitateko jardueren eguneroko zereginetan txertatzea	71
ERANSKINAK.....	75
1. ERANSKINA: Campus Bizia Lab programako proiektuetatik eratorritako argitalpenak.....	76
2. ERANSKINA: Garapenerako Unibertsitate Lankidetzako proiektuetatik eratorritako argitalpenak.....	79
3. ERANSKINA: UPV/EHUren prentsa oharrak.....	80

1. SARRERA

Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Iraunkortasuneko Zuzendaritzaren bigarren memoriak iraunkortasunaren arloan 2018an egindako aurrerapenak erakusten ditu. Kudeaketan, irakaskuntzan, ikerketan eta unibertsitate-hedapenean izan duen eragin positiboa deskribatzen du, eta Iraunkortasuneko Zuzendaritzaren eginkizun nagusien inguruan antolatuta dago

1. Unibertsitatearen kudeaketa iraunkorra areagotzea
2. Iraunkortasunerako berrikuntza-proiektuen bultzada
3. Garapenerako unibertsitate-lankidetzako proiektuak sustatzea
4. Iraunkortasunaren arloaren inguruko prestakuntza eskaintzea unibertsitate komunitate osoari.
5. Unibertsitate komunitatearen partaidetza sustatzea elkartasunezko eta garapenerako lankidetzako ekimenetan.
6. Errefuxiatuei laguntzeari dagokionez UPV/EHUK hartu dituen konpromisoak garatzea.
7. Lankidetzak bultzatzea eta iraunkortasunaren eta garapenerako lankidetzaren arloan lan egiten duten entitateekin batera egiten dugun lana ikusgarri egitea
8. Nazioen garapen iraunkorrerako 2030 Agenda txertatzea UPV/EHUren eguneroko jardunean.

Memoria hau argitaratzean, giza garapen iraunkorra sustatzeko xedearekin Iraunkortasuneko Zuzendaritzak gauzatu dituen ekintzak zabaldu eta interesatutako pertsona guztiek duten informazio beharra asetzeaz gainera, zentzu honetako memoriak eta txostenak egitea eskatzen duten nazio mailako eta nazioarteko hainbat organismoren eskaerei ere erantzun nahi izan diegu.

Gauzatu ditugun ekintzetako batzuk Eusko Jaurlaritzak hainbat programa kontraturen bidez helarazi digun finantzaketari esker burutu dira. Kudeaketa, irakaskuntza, prestakuntza eta gure unibertsitate komunitatearen sentsibilizazioari dagokienez iraunkortasuna lantzea ahalbidetu digute aipatutako kontratuek, harremanak estutuz gizartearekin.

2. EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO IRAUNKORTASUNAREN ARLOKO ZUZENDARITZA

[UPV/EHUko Iraunkortasuneko Zuzendaritza](#) 2017ko otsailean jaio zen, iraunkortasunaren kultura eta konpromiso soziala unibertsitate komunitatearen barruan bultzatzeko xedearekin.

Bere estatutuetan, eguneroko jarduera ekonomikoki, sozialki eta ingurumenari dagokionez era iraunkorrean garatzeko konpromisoa hartu du UPV/EHUK. Aipatutako zeregin hori irakaskuntzan ez ezik, kudeaketan, ikerketan eta unibertsitate-proiektzioan ere islatzen du. Konpromiso hori sendotzeko, [UPV/EHUren 2018/2021eko Plan Estrategikoan](#), helburu hauek daude jasota III. ardatzean –Gizartearekiko harremana– eta IV. ardatzean –Pertsonak–:

- «Unibertsitatea garapen jasagarria, inklusioa eta gizarte-konpromisoa sustatzen dituen erakunde bihurtzea»
- «Ikasleen artean unibertsitate balioak, lankidetzak, berdintasuna, pentsamendu kritikoa, sormena eta gizarte konpromisoa bultzatzea, herritar gisa prestakuntza integrala jaso dezaten».

Zuzendaritza honi atxikita dago [UPV/EHUko Garapenerako Lankidetzak Bulegoa](#). Zerbitzu horren helburua da garapenerako unibertsitate lankidetzak sustatzea UPV/EHUan, zeina unibertsitate-komunitate osoaren ahalegin solidario gisa ulertzen baita, lankide dituen gizarte gaitasunak indartzeko xedearekin, bai eta gizartearen beraren gaitasunak ere.

Instituzionalki, Iraunkortasuneko Zuzendaritza [Berrikuntzaren](#), [Gizarte Konpromisoaren eta Kulturagintzaren arloko Errektoreordetzaren](#) mende dago eta hiru campusetako errektoreordetzekin koordinatzen da.

2.1. Helburuak

Hauek dira UPV/EHUko Iraunkortasuneko Zuzendaritzaren helburuak:

- Gure bitartekoen erabilera eraginkorragoa bultzatzea, ingurumenaren eta pertsonen bizi-kalitatearen babesa eta hobekuntzarekin koherentea.
- XXI. mendean ditugun arazoei aurre egiteko sormenezko konponbide eraginkorrak garatzea ahalbidetuko duen ingurune akademiko ekintzaile eta berritzaile bat sortzea.
- Gizartearekin konprometituta dagoen eta hainbat balio – inklusioa, ekitatea, iraunkortasuna...– sustatuko dituen unibertsitate bateranzko aldaketa bultzatzea.
- Unibertsitate jardueraren onurak maximizatu eta eragin kaltegarriak minimizatzeko xedea duten ekintzak abiaraztea eta, gure ingurunearen eta

planetaren eraldatze sozioekonomikoari lagundu ez ezik, gizarte-garapena sustatzea.

Hauk dira UPV/EHUko Garapenerako Lankidetzaren Bulegoaren helburu bereziak:

- Garapenerako Lankidetzaren eta Hezkuntzaren unibertsitatearen –erakunde gisa hartuta– gizarte-eginkizunean txertatzea.
- Elkartasun-balio unibertsitatearen oinarritutako prestakuntza sustatzea, ikasleek bai gure gizarteari eta bai Hegoaldeko gizartei eragiten dieten arazoei buruzko eztabaidetan parte har dezaten, zuzentasuna, iraunkortasuna eta giza eskubideen errespetua oinarri hartuta.
- Munduko hainbat lekutan gizakiaren garapena baldintzatzen duten era askotako arazoen ezagutza, ikerketa eta zabalkundea bultzatzea.
- Garapenerako lankidetzaren eta hezkuntzaren zerbitzura giza baliabide espezializatuak jartzea, eta, beste erakunde eta gizarte eragile batzuekin batera, lankidetzarako proiektu eta programak abian jartzeko zereginen parte hartzea.
- Unibertsitateko kideen artean elkartasun aktiboa eta boluntario lana indartzea, ikasleen artean batik bat, eta haien boluntario lana erraztea esparru espezifiko batean, programa propioak martxan jarri edo ikasleak beste erakunde batzuetara bideratuz.

2.2. Langileak

Ondokoak dira Iraunkortasuneko Zuzendaritzaren langileak: zuzendari bat, lau teknikari eta administrazio-eginkizunetarako bi pertsona.

Kargua	Izen-deiturak	Telefonoa	E-posta
Iraunkortasuneko zuzendaria	Estibaliz Sáez de Cámara Oleaga	946018212 946012039	estibaliz.saezdecamara@ehu.eus
Iraunkortasuneko teknikaria	Aitxiber Zallo	946013083	aitxiber.zallo@ehu.eus
Hondakinen eta Ingurumen Kalitatearen arloko teknikari kudeatzailea	Isaac Barrio Marin	943018164	isaac.barrio@ehu.eus
Gestioko teknikaria	Paloma Sánchez Valdivielso	946017933	paloma.sanchez@ehu.eus

Lankidetzako teknikaria	Estibaliz Martínez Villabeitia	946012221	estibaliz.martinez@ehu.eus
Administraria	Amaia Agirre Ibarra	946012855	amaia.aguirre@ehu.eus
Administrari laguntzailea	Espe Etxeandia Egidazu	946012067	espe.etxeandia@ehu.eus

2.3. Kontaktua eta kokapena

Kontaktua

Posta elektronikoa: iraunkortasuna@ehu.eus

Posta elektronikoa: oficop@ehu.eus

Kokapena

Iraunkortasuneko Zuzendaritza
 Liburutegi Nagusiaren Eraikina, 6. solairua
 Euskal Herriko Unibertsitatea. Bizkaiko campusa
 Sarriena auzoa z/g – 48940 Leioa-Erandio (Bizkaia)

Webgunea

<https://www.ehu.eus/es/web/iraunkortasuna>

3. 2018AN GARATUTAKO EKINTZAK

Aurreko helburu horiek lortu ahal izateko, 2018. urtean zehar, UPV/EHUko Iraunkortasuneko Zuzendaritzak hainbat ekintza antolatu eta/edo koordinatu ditu, alor batzuetan eta besteetan. Horien artean, honako lan-ildo hauek nabarmentzen dira: unibertsitatearen kudeaketa iraunkorrean aurrera egitea; lankidetzalana bultzatzea unibertsitateko kideen artean, UPV/EHUk dituen iraunkortasun-arazoei aurre egiteko; Garapenerako Unibertsitate Lankidetzalana indartzea; iraunkortasunaren eta sareko parte-hartzearen inguruko prestakuntza osagarria unibertsitateko kideen esku jartzea; parte-hartzea sustatzea elkartasuneko eta garapenerako lankidetzako ekimenetan; UPV/EHUk nazioarteko babes-egoeran dauden pertsonen (babesa eskatu dutenak eta errefuxiatuak) laguntzeari dagokionez hartu dituen konpromisoak garatzea, eta hitzarmenak sustatzea eta iraunkortasunaren eta garapenerako lankidetzaren arloan lan egiten duten erakundeekin egiten den lankidetzalana ikusaraztea.

3.1. Unibertsitatearen kudeaketa iraunkorrean aurrera egitea

Azken urteotan, ingurumenarekiko kudeaketa arduratsua landu izan da, batez ere UPV/EHUko unibertsitate-zentroetan eta eraikinetan dauden ingurumena hobetzeko taldeen bitartez. Talde horiek lankidetzan aritu dira campusetako errektoreordetzekin, Iraunkortasuneko Zuzendaritzarekin eta beste zerbitzu batzuekin, hala nola Arkitektura eta Obra Zerbitzua eta Kontratazio eta Erosketa Zerbitzua, eta esparru horretako hainbat politika eta planen aginduak gauzatu dituzte. Halaber, laneko segurtasunarekin eta osasunarekin lotutako alderdiak landu dira Prebentzio Zerbitzuaren bidez, bai teknikaren eta bai osasunaren ikuspegitik.

2018. urtea zubi edo trantsizio bat izan da etapa berri baterantz: alde batetik, unibertsitate-zentroen eta unibertsitateko eraikinen ingurumen-kudeaketa iraunkorrerako ekintzak sustatzen jarraitu da, eta, bestetik, kudeaketa-esparruko ekintzak irakaskuntza- eta ikerketa-jarduerekin integratzera bideratutako hainbat ekintza ere indartu dira, biak ala biak helburu jakin batekin: gure jardueren ingurumenean sortzen duten inpaktu negatiboa murriztea. Jarraian zehazten dira.

3.1.1. Hondakinak

Kudeaketa iraunkorraren esparruan, UPV/EHUko konpromisoetako bat unibertsitate-zentroetan eta unibertsitateko beste eraikin batzuetan –hala nola ikerguneak– sortzen diren hondakinen kudeaketa arduratsua egitea da. Iraunkortasuneko Zuzendaritzak unibertsitate-erkidegoaren ingurumen kontzientzia sustatzea xede duten ekintzak koordinatzen ditu, arreta berezia jarriarik sentsibilizazioan eta hondakinak kudeatzeko estrategiarekiko inplikazioan.

Hauek dira esparru horretako lan-ildo nagusiak:


- Hondakinen minimazioa sustatzea, hala arriskutsuak nola ez-arriskutsuak.
- Hondakinen gaikako sailkapena bultzatzea, haien birziklatzea edo baliaraztea errazteko, behar diren informazioa eta baliabideak eskainiz.
- Unibertsitatean sortzen diren hondakin arriskutsuak kudeatzeko protokoloa etengabe hobetuz joatea, unibertsitate barruko kudeaketa eta hondakin arriskutsuak erretiratzeko dituzten kanpoko enpresekiko koordinazioa barne direla.
- Hondakin arriskutsuei dagokienez, indarrean dagoen legedia betetzen dela bermatzea.
- Aholkularitza tekniko eskaintzea bai ikastegiei eta bai unibertsitatearen mendeko egiturei, hondakin arriskutsuei dagokienez.
- Ingurumenari eta hondakinen kudeaketari buruzko prestakuntza –eta informazio– orokorra eta/edo berezia emateko ikastaroen diseinua eta irakaskuntza laguntzea.

2018. urtean ondoko ekintza hauek gauzatu dira, hain zuzen:

JARDUNBIDE EGOKIEN ESKULIBURUA UPV/EHUⁿ HONDAKIN KIMIKO ARRISKUTSUAK MINIMIZATZEKO

- Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoarekin (IHOBE) lankidetzan, 2017an egindako azterlanetik abiatuta, «UPV/EHUⁿ hondakin arriskutsu kimikoak minimizatzeko jardunbide egokien eskuliburua» argitaratu da. Eskuliburu horretan 28 jardunbide egoki deskribatzen dira, UPV/EHUko irakaskuntza- eta ikerketa-laboregietan sortutako hondakin arriskutsuen kopurua eta kudeaketa-kostuak hobetzeko eta murrizteko.

Argitalpen horrekin batera, identifikatutako jardunbide egoki horien laburpena jasotzen duen liburuxka bat ere argitaratu da. Bi dokumentuak, bai [webgunean](#) eta bai paper formatuan argitaratu baitira, unibertsitateko hondakin arriskutsuen ekoizpenaz eta/edo kudeaketaz arduratzen diren



pertsona guztien artean zabaldu dira, eta hainbat bileratan aurkeztu zaizkie Dekanotzetako arduradunei eta horrelako hondakinak gehien sortzen dituzten lau zentroetako Sailen Zuzendaritzetako arduradunei: Zientzia eta Teknologia Fakultatea, Kimika Fakultatea, Farmazia Fakultatea eta Joxe Mari Korta Ikerketa Zentroa.

Azterlan horretan ikusi ahal izan denez, sorturiko hondakin arriskutsuen parte handi bat erabili ere egin gabe bota diren errektibo kimikoak edo laborategi-materialak dira. Horrexegatik, UPV/EHUko irakasleei eta teknikariei errektiboan eta laborategi-materialen truketzea ahalbidetuko dien informatika-aplikazio bat garatzen ari gara (LAB-TRUKE).

HONDAKIN ARRISKUTSUAK EKOIZTEN DITUZTEN ZENTROEN ERREGISTROA

- Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Saileko Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzari eskatu zaio UPV/EHUko [hondakin arriskutsuak ekoizten dituzten zentroak inskriba ditzatela](#) baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) Hondakin Arriskutsuen Ekoizle Txikien Erregistroan izena emanda ez bazeuden. Letren Fakultatea, Arte Ederren Fakultatea, Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea, Plentziako Itsas Estazioa (PIE) eta Zamudioko IBEA Kimika Analitikoko Taldea barnean hartzearekin, eguneratuta eta osatuta geratu da hondakin arriskutsuak sortzen dituzten UPV/EHUko zentro guztien inskripzioa aipatutako erregistroan.

Era berean, Medikuntza eta Erizaintza Fakultateari eta Bilboko Ingeniaritza Eskolari dagokien inskripzioa aldatu dadila eskatu da Hondakin Arriskutsuen Ekoizle Txikien Erregistroan, hain zuzen ere, aipatutako zentro horietako bakoitzean multzokatu nahi baitira zentro horiek osatzen dituzten eraikin guztiak, UPV/EHUren antolamendu- eta lege-errealitatearekin bat etorririk, zentroen antolaketa berriari dagokionez.

HONDAKINEN KUDEAKETAREN ESPARRUKO PRESTAKUNTZA

- [Unibertsitateko Irakasleen Prestakuntza Programaren](#) esparruan (FOPU) eta UPV/EHUko Prebentzio Zerbitzuarekin lankidetzan, mintegi bat antolatu zen [«Nola egin nire laborategi-praktikak seguruagoak eta iraunkorragoak»](#) izenburupean. Mintegi horren helburu nagusia –esan behar da gaztelaniaz eta aurrez aurreko modalitatea zein online-koa konbinatuz eman zela– laborategiko praktikak irakasten dituzten irakasleei gutxieneko ezagutza maila bat ematea izan zen laborategiko jardunbide egokiei buruz, gune horietako arriskuen prebentzioaz eta hondakin arriskutsuen kudeaketaz, betiere hondakin horien zenbatekoa eta arriskua minimizatu beharra dagoela behin eta berriro azpimarraturik. Horretarako, lanean modu seguruan aritzeko jarraibideak eskaini ziren, laborategian egon daitezkeen arriskuak ezagutarazi ziren, larrialdi eta istripu kasuan jarduteko

neurriak deskribatu eta oinarrizko nozioak azaldu ziren hondakin arriskutsuen kudeaketaz eta horiek murrizteko tekniken inguruan.


12 pertsonak hartu zuten parte, 7 emakumezko eta 5 gizonzko, Bizkaia eta Arabako campusetakoak.

1. taula: «Nola egin nire laborategi-praktikak seguruagoak eta iraunkorragoak» mintegiaren ebaluazioko itemetan proposatutako baieztapenekiko adostasun/desadostasun maila (6tik).

	1.	2.	3.	4.	5.	6. - Media
1.1. El seminario se ha desarrollado según el programa previsto.	0%(0)	12%(1)	12%(1)	0%(0)	38%(3)	38%(3) 5
1.2. El seminario ha dado respuesta a mis necesidades formativas.	12%(1)	0%(0)	25%(2)	0%(0)	38%(3)	25%(2) 4
1.3. Mi actitud durante el seminario ha sido participativa y abierta.	0%(0)	0%(0)	12%(1)	25%(2)	38%(3)	25%(2) 5
1.4. La metodología utilizada ha facilitado el aprendizaje.	12%(1)	12%(1)	0%(0)	25%(2)	25%(2)	25%(2) 4
1.5. Las tareas realizadas han favorecido mi desarrollo profesional.	12%(1)	0%(0)	0%(0)	12%(1)	62%(5)	12%(1) 5
1.6. Los recursos utilizados han sido útiles y estimulantes.	14%(1)	14%(1)	0%(0)	0%(0)	43%(3)	29%(2) 4
1.7. La dinámica del seminario ha permitido intercambiar experiencias entre los participantes.	14%(1)	14%(1)	14%(1)	0%(0)	43%(3)	14%(1) 4
1.8. Los formadores han sabido adecuar el planteamiento inicial a las necesidades que han surgido en el seminario.	14%(1)	0%(0)	14%(1)	29%(2)	14%(1)	29%(2) 4
1.9. El trabajo desarrollado por los formadores ha sido positivo.	14%(1)	0%(0)	0%(0)	29%(2)	43%(3)	14%(1) 4
1.10. Recomendaría este seminario a un/a compañero/a.	14%(1)	14%(1)	0%(0)	14%(1)	29%(2)	29%(2) 4

Mintegiaren amaieran, parte-hartzaileek berorri buruzko ebaluazio-inkesta bat bete zuten. Inkesta horien emaitzak 1. taulan erakusten dira. Ikastaroei buruzko gogobetetze orokorra 4/6 (6tik 4) izan zen, eta nabarmendu zen aurreikusitako programaren arabera garatu zela mintegia eta egindako lanak lagungarri izan zirela garapen profesionalerako.

- 2 prestakuntza-ikastaro antolatu dira, aurrez aurreko formatuan, izenburu honekin: «[Osasun-hondakinen kudeaketa UPV/EHU](#)n». 2 ordu eta erdiko ikastaro horiek 2018ko azaroaren 20an eta 22an egin ziren Bizkaiko eta Arabako Campusetan, hurrenez hurren. Ikastaroetan, unibertsitate talde ezberdinetako (JAP, IRI eta ikasleak) 99 pertsonak parte hartu zuten: 74 emazteki eta 25 gizonzko. 1. Irudiak parte-hartzaileen banaketa irudikatzen du talde, genero eta campusen arabera.




1. irudia: «Osasun-hondakinen kudeaketa UPV/EHU» ikastaroan parte hartu duten pertsonak taldearen (ezkerrean), generoaren (erdian) eta campusaren arabera (eskuinean).


Ikastaroen amaieran, parte-hartzaileek ebaluazio-inkesta bat bete zuten. Inkesta horretan, hainbat adierazpen proposatu zitzaizkien, antolaketarekin, edukiekin, dokumentazioarekin eta abarrekin bat zetozen edo ez erakusteko aukera izan zezaten. Ikastaroei dagokienez, 8.2/10 (10etik 8.2) izan da gogobetetze orokorra, eta oso positibotzat jo ziren emandako dokumentazioa

(4.3/5) eta irakasle-taldearen ekarpena (4.2/5). Ikastaro horietan, iradokizunak eta iruzkinak jaso dira etorkizuneko ikastaroak hobetzeari begira.

- Aurrez aurreko ikastaroen osagarri gisa, «**Jardunbide egokiak laborategian**» izeneko online ikastaroaren bigarren zatia diseinatu da. Hondakin arriskutsuen kudeaketa lantzea du xede. Ikastaroaren bigarren zati hori 25 ordukoa da eta unibertsitate-erkidego osoari zuzenduta dago. Euskaraz eta gaztelaniaz eskaini zen 2018ko urriaren 1etik azaroaren 6ra bitartean, [eGelapi](#) plataforma birtualaren bidez.




Ikastaroaren lehen edizio honetan 230 pertsonak hartu zuten parte, 64k euskaraz eta 166k gaztelaniaz, eta % 92ko arrakasta-tasa izan zuen; horrek esan nahi du parte hartu zuten pertsonen gehiengo handi batek gainditu zituela. 2. irudian, parte-hartzaileen banaketa erakusten da, ikastaroa egin zuten hizkuntzaren, dagokien kolektiboaren, generoaren eta ikasten eta/edo lan egiten duten campusaren arabera.



2. irudia: «Jardunbide egokiak laborategian» ikastaroan parte hartu zutenen kopurua, hizkuntzaren, generoaren, kolektiboaren eta campusaren arabera.

Ikastaroen amaieran, beste prestakuntza batzuetan bezala, parte-hartzaileek ebaluazio-inkesta bat bete zuten. Bertan, hainbat adierazpen proposatu zitzaizkien antolakuntza, edukiak, dokumentazioa eta abarrekin bat zetozen edo ez adierazteko aukera izan zezaten. Ikastaroekiko batez besteko gogobetetze orokorra 7,8/10 (10etik 7,8) izan da, eta altuagoa gaztelaniazko ikastaroan (8.1/10) euskarazkoan baino (7.6/10).

2. taula: «Jardunbide egokiak laborategian» ikastaroaren ebaluazioko itemetan proposatutako adierazpenekiko adostasun/desadostasun maila (5etik).



2. taulan, proposatutako adierazpenei buruz ikastaroan parte hartu duten pertsonen egindako balorazioen emaitzak aurkezten dira; besteak beste, nabarmentzekoa da, horien artean, ikastaroaren ebaluazioa ikastaroan landutako edukietara egokitu dela iritzi izan diotela (4.3/5). Halaber, interesgarria iruditzen zaigu parte-hartzaileek onartu izana ikastaroan parte hartu ondoren kontzienteago direla hondakin arriskutsuek ingurumenean eta osasunean sortzen duten inpaktuaz eta inpaktu hori murriztu beharraz.

2018an hondakinen esparruan burututako beste ekintza batzuk honako hauek izan dira:

- Ur botilen orde, pitxerrak eta basoak jarri dira bilera eta ekitaldietan.
- Edukiontzia ipini dira, hiri hondakinak gaika jaso ahal izateko unibertsitate mailako ikastegietan.
- Online-ko eskaera-inprimaki bat sortzea eta kudeatzea, baimendutako kudeaketa-enpresa baten bitartez tresna eta gailu elektriko eta elektronikoen hondakinak (GEEH) erretiratzeko.
- Bi edukiontzi jartzea Arabako Campuseko Las Nieves ikasgelategian, laborategietako mikroskopioetatik eta Campuseko ikus-entzunezko zerbitzuetako ekipamenduen proiektagailuetatik datozen merkuriozko lanpara txikiak biltegiatu eta kudeatzeko.
- Bilboko Ingeniaritza Eskolan eta Gipuzkoako Ingeniaritza Eskolan hondakin arriskutsuak biltegiatzeko aholkularitza, Ingeniaritza Mekanikoko laborategietan segurtasuna bermatzen duten elementuak aukeratzea errazteko (metalezko txirbil-hondakinak bereizteko ontziak, taladrina-hondakinak atxikitze kubetak, etab.)

- Kartel bat egitea produktu kimikoak eta hondakin arriskutsuak biltegitzeko bateraezintasunei buruzko informazioarekin, Gipuzkoako Campuseko ikastegietako hondakin arriskutsuen biltegitan jartzeko (Kimika Fakultatea, Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola eta Joxe Mari Korta Zentroa).

3.1.2. Energia

2018. urtean aurkeztu dira [energia elektrikoaren kontsumo arduratsurako sentsibilizazio proiektua, monitorizatzearen eta unibertsitate-erkidegoaren partaidetzarekin prestatzearen bidez](#) izeneko proiektuaren emaitzak eta hasierako ondorioak. Proiektu honen helburua da, batetik, taldeen arteko lankidetzaz- eta lehia-dinamika bat sortzea, UPV/EHUko eraikinen eraginkortasun energetikoan aurrera egiteko, eta, bestetik, unibertsitate-erkidegoa kontzientziatzea energia-kontsumoaren eredu jasangarriagoetara aldatu beharraren inguruan.

Proiektua UPV/EHUko hiru campusetako 4 ikastegitan pilotatu da: [Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea \(Gipuzkoako Irakasleen UE\)](#), [Ekonomia eta Enpresa Fakultatea \(Gipuzkoa Atala\)](#), [Vitoria-Gasteizko Ingeniaritza Eskola](#) eta [Bilboko Ingeniaritza Eskola \(I. eraikina\)](#).

Lau ikastegi horietan 2016. eta 2017. urteetan egindako neurketak aztertu ondoren, garrantzi handiko informazioa eskuratu zen monitorizatutako eremuetako energia-erabilerearen inguruan. Informazio horri esker, kontsumoen eta eskaeren patroik edo ereduak ezarri ahal izan dira. Kontsumo elektrikoari dagokienez, eraikin bakoitzeko energia ziklikoaren kontsumoa ezarri ahal izan da, gehieneko eta gutxieneko kontsumo elektrikoak zehaztu dira, eraikinen erabilera-moduei lotutako kontsumoak aztertu dira (irakaskuntza, ikerketa, administrazioa eta zerbitzuak, garbiketa, stand-by, ...), kontsumo-eskarien erpinak zehaztu dira eta gutxieneko kontsumoen oinarria ezarri ahal izan da. Elektrizitate-eskaerari dagokionez, monitorizatutako zirkuituen gehieneko eta gutxieneko eskariak zehaztu ahal izan dira, potentzia-eskaeren balio erpinak, ertainak eta haranak bistaratu dira, eraikinen erabilera-moduei lotutako eskaerak zer nolako nagusitasuna izan duten aztertu da eta gutxieneko potentziaren oinarria bistaratu da. Aldi berean, online-ko parte-hartze prozesu bat garatu da [eGelapi](#) plataforma birtualaren bitartez, unibertsitate-erkidego osoa inplikatzeko helburuarekin, modu dinamiko, eraginkor, plural eta gardenean.

Ikastegi bakoitzean monitorizatutako guneei, emaitzei eta ekintza-taldeei buruzko informazio gehiago zehazten da proiektu honen [webgunean](#).

Hona 2018. urtean energiaren esparruan aurrera eramandako beste ekintza batzuk:

- Orain arteko argien ordeztuak LED argiak jarri dira eta jendearen presentzia hautematen duten gailuak eta denborazko etengailuak instalatu dira, energiaren efizientzia hobetzeko.

- Argiteriaren instalazio elektrikoak berriro dira zenbait ikasgela eta laborategitan, ezarritako baldintzak bete ditzaten.
- Eguzki xaflak instalatu dira Bizkaiko Campuseko hainbat ikastegitan.

3.1.3. Mugikortasuna

Mugikortasun iraungarria da 2018an landu den beste alderdietako bat, hain zuzen ere, ingurumen-talka handienetakoa sortzen duen unibertsitate-jardueretako bat baita. UPV/EHUk unibertsitate-erkidegoaren mugikortasun iraungarriaren aldeko apustua egiten du. Horretarako, hainbat ekintza jarri dira abian unibertsitateetara motor gabeko garraio bideetan (oinez eta bizikletaz) joan ahal izateko. Gainera, garraio publikoko joan-etorriak eta ibilgailuen erabilera partekatua sustatu dira.



Ekintza horietako asko Mugikortasun Iraunkorraren aldeko Europako Unibertsitateen Sarea osatzen duten zenbait unibertsitateekin batera antolatu dira Europako Batzordearen LIFE Programako U-MOB proiektuaren markoan, horko kide baita UPV/EHU 2017tik.

UPV/EHUko Mugikortasun Plana egin aurreko urrats gisa, UPV/EHUren Mugikortasun Diagnostikoa egin da. Diagnostikoa egiteko erabili den metodologia jada eskuragarri zegoen informazioa biltzea izan da, eta, ondoren, informazio osagarria bilatzea. Horrez gainera, mugitzeko ohiturei buruzko inkesta bat egin zaio unibertsitate-erkidegoari, beste bide batzuetatik lortu ezin izan den informazioa eskuratzeko xedez. Informazio guztia bildu ondoren, aztertu egin da, UPV/EHUko unibertsitate-erkidegoaren mugikortasun-ohiturak eta garraio publikoaren eskaintza-eskariaren egungo egoera zehazteko, bai eta ohitura horien motibazioen berri izateko ere. Gainera, mugikortasunetik eratorritako CO₂ isuriak ere kalkulatu dira.

Diagnostiko hori AMIA formatuan aurkeztu da, hau da, ahuleziak (A), mehatxuak (M), indarguneak (I) eta aukerak (A) identifikatu dira, hain zuzen ere, baliagarria izan dadin zer alderdi mantendu, zuzendu, ustiatu edo aurre egin behar zaien erabakitzeko. Mugikortasunari eskainitako webgunean kontsulta daiteke.



Motor gabeko garraiobideen eta garraio publikoaren erabilera sustatzeko jarduerak areagotu egin dira [Mugikortasunaren Europako Astea \(SEM\)](#) zeina 2018ko irailaren 16tik 22ra bitartean ospatu baitzen «Mix & Move – Konbinatu eta mugitu» goiburuean



Aste horretan, hainbat jarduera antolatu ziren hiru campusetan, ikastetxeetara joateko dauden aukerak ikusarazteko xedez, [U-MOB sareko bideo-lehiaketa](#) eta ondorengo [SEM erronka](#) barne.

Arabako Campusean:

- Bizikletan doikuntzak egiteko standa.
- «Why We Cycle» film dokumentalaren emanaldia. Lan horretan, aditu talde batek Herbeheretako bizikletaren kultura aztertuko dute.

Bizkaiko Campusean:

- Hitzaldia: «Unibertsitateetako mugikortasun iraungarria, erronkak, esperientziak eta jardunbide egokiak»
- «UPV/EHUko mugikortasunaren diagnostikoaren» aurkezpena

Gipuzkoako Campusean:

- Bizikletaren tailerra eta standa.



[Mugikortasun iraungarriko bideo-lehiaketa](#) aldi berean antolatu zen Europako sarea osatzen duten unibertsitateetan, unibertsitate-erkidegoari bere sormena erakusteko aukera ematearren, eta, aldi berean, irisgarritasunari eta eguneroko mugikortasunari buruz duen pertzepzioa bere ikaslekura edo lantokira helaraz zezan. Parte hartu zuen unibertsitate bakoitzak, bere irizpideen arabera, mugikortasun iraungarriaren balioak edo egunerokotasunean hautemandako gabeziak ondoen irudikatzen zituzten bideoak aukeratu zituen. Bideo onenak U-MOB proiektuaren webgunean partekatu ziren, Europako beste campus batzuetan kontzientziazio-eraginak biderkatzeko asmotan.

[SEM erronka](#), berriz, lehiaketa bat izan zen, non unibertsitate-erkidegoko kideei eskatzen baitzitzaie metatu zitzatela 100 ziklo bizikletaz, oinez, patinetan, partekatutako autoan edo garraio publikoan, hilabeteko epean. UPV/EHU 10. postuan geratu zen parte hartu zuten 16 unibertsitateen artean.



Gainera, 2018ko apirilean, SEM erronkaren antzeko kanpaina bat antolatu zen «[30 egun bizikletaz erronka](#)» izeneko. Erronka horretan, campusetara lekualdatzeko orduan bizikleta erabiltzea sustatzen zen. 83 pertsonak hartu zuten parte, 37 emakumezko eta 46 gizonzko zehazki, eta 6576.1 kilometro iraungarri osatu zituzten.

Hona 2018an mugikortasunaren esparruan aurrera eramandako beste ekintza batzuk:

- Hiru campusetan, bizikletak uzteko gero eta toki gehiago prestatu dira.
- Informazio xehatua eman da unibertsitate-ikastegietako webguneetan garraio publikoan nola heldu jakiteko.
- VAO3+ izeneko lehentasuneko aparkalekuak okupazio handiko ibilgailuentzat (3 bidaiari edo gehiago) Bizkaiko Campusean.

3.1.4. Erosketa eta kontsumo arduratsua

UPV/EHUK irizpide etikoak, sozialak eta ingurumen arlokoak gehitzeko konpromisoa hartu zuen kontratazioak esleitzeko eta egikaritzeko orduan. Horretarako, [errektoreak zirkular bat argitaratu zuen kontratazioetan irizpide sozialak, etikoak eta ingurumen arlokoak kontuan hartzeko](#) eta, bestalde, [UPV/EHUK bat egin zuen bidezko merkataritzaren eta kontsumo arduratsuaren alde Espainiako Unibertsitateek egindako adierazpenarekin](#). Horrela, UPV/EHUKo kontratazio zerbitzuak aipatutako irizpideak txertatu ditu hainbat kontratutan, Iraunkortasuneko Zuzendaritzarekin eta IHOBE – Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoarekin lankidetzan.

Esparru horretan aurrera egiteko xedez, UPV/EHUK unibertsitate-erkidegoko 6 pertsonaz osatutako lantaldea eratu zuen «**Bidezko Merkataritzaren aldeko Unibertsitatea**» titulua eraman ahal izateko baldintza estandarrak betetzen direla zaintzeko, honako eskakizun hauek tartean direla:

- Bidezko merkataritzako irizpideak kontuan hartzea kontratu eta erosketetan

- Unibertsitate-ikastegietan bidezko merkataritzako produktuen eskuragarritasuna egiaztatzea
- Bidezko merkataritzari eta kontsumo arduratsuari buruz komunikatzea eta sentsibilizatzea eta,
- Baldintza horiek betetzen direla zaintzea.

Unibertsitate-erkidegoan kontsumo arduratsua sustatzeko egindako lan handia eta ezarritako irizpide estandarren betetze maila altua aintzat harturik, 2018ko abuztuan, UPV/EHUK «Bidezko Merkataritzaren aldeko Unibertsitatearen» Diploma eta Zigilua jaso zituen [IDEAS](#) kooperatibaren eskutik.



Era berean, azpimarratzekoa da IHOBETik jasotako zorion-agurra, erosketa eta kontratazio publiko berdearen alde egindako lanagatik. Ingurumen-klausulak txertatu diren lizitazioen kopurua eta berorien zenbatekoa kontuan hartuta, 2018an UPV/EHU euskal erakunde publikoen sailkapeneko bigarren tokian kokatu zen.

Bestalde, Leioako Ostalaritza Eskolarekin eta Galdakaoko Boluntarioen Gizarte Elkartarekin (GBGE) lankidetzan eta elkarlanean abian jarritako ekimena sostengatzen jarraitu dugu: [Hozkailu Solidarioa](#).

Ekimen horren xedea da elikagaien xahuketa bukatzea Ostalaritza Eskolako jangelan eta hondakin organikoen sorrera murriztea. Ostalaritza Eskolako irakasleek zein ikasleek egiten duten ahaleginari esker funtzionatzen du, horiek baitira elikagaiak egunero berritzeaz eta hozkailua higiene egoera onean mantentzeaz arduratzen direnak.



Leioako Ostalaritza Eskolarekiko elkarlana formalizatu eta sendotzeko xedez, lankidetzaz hitzarmen bat sinatu zen 2018ko otsailean, bidezko merkataritzarekin, kontsumo arduratsuekin eta elikagai-burujabetzarekin lotura duten ekimenak sustatzeko.

Hona beste ekintza batzuk erosketa eta kontsumo arduratsuen esparruan 2018an egin direnak:

- Toner birziklatuen erosketa handitzea.
- Pixkanaka, paper zuria birziklatutako paperarekin ordezkatzeko.
- Kopia zentralizatzea funtzio anitzeko inprimagailuetan.
- Ekitaldiak, ikastaroak edo biltzarrak antolatzeko orduan, zerbitzuak kontratatzeke eta produktuak erosteko iraunkortasun-irizpideak erabiltzea.

3.1.5. Ingurumen eragina ebaluatzea

Bestalde, UPV/EHUren ingurumen-iraunkortasunaren diagnostikoa egin da 2018an. Horretarako, [Espainiako Unibertsitateetako Errektoreen Konferentziako](#) (CRUE) Iraunkortasuneko sektore-batzordearen [Unibertsitateetako iraunkortasunaren ebaluazioari buruz unibertsitate osoari dagozkion jarduketan ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa](#) (GESU) lantaldeak garatutako erreminta erabili da. Unibertsitateen iraunkortasun maila –ingurumenari buruzkoa– ezagutzeko diseinatu da erreminta hori, eta, aldi berean, etengabeko hobekuntzarako tresna bat da, zentro horietako ingurumen-kalitateari dagokionez. Unibertsitatearen funtsezko hiru arlotan oinarrituta dago aipatutako erreminta: antolakuntza, irakaskuntza eta ikerketan eta kudeaketan.


3. taulan, erremintak kontuan hartzen dituen hamaika (11) esparruetan lorturiko emaitzak biltzen dira, bai eta arlokako batez besteko emaitzak ere.

3. taula: UPV/EHUren ingurumen-inpaktuaren Ebaluazioan 2018an lortutako emaitzak, GESU erremintaren bidez kalkulaturak. Berdez markatutako puntuazioek hobekuntza adierazten dute 2017ko emaitzekiko.

Adierazleak	Puntuazio	Gehieneko	Ehuneko
Iraunkortasuneko Politika	8,5	13	% 65,4
Unibertsitate komunitatearen inplikazioa eta sentibilizazioa	9	15	% 60,0
GUZTIRA 1. Arloa: Antolakuntza	17,5	28	% 62,5
Irakaskuntza	8,5	12	% 70,8
Ikerketa eta teknologiaren transferentzia	9,5	14	% 67,9
GUZTIRA 2. Arloa: Irakaskuntza eta ikerketa	18	26	% 69,2
Hirigintza eta biodibertsitatea	2,5	6	% 41,7
Energia	8,5	21	% 40,5
Ura	4,5	11	% 40,9
Mugikortasuna	4,5	10	% 45,0
Hondakinak	1,5	6	% 25,0
Erosketa Berdea	8,5	17	% 50,0
Unibertsitate jardueraren ingurumen-talkaren ebaluazioa	2	15	% 13,3
GUZTIRA 3. Arloa: Ingurumen Rudeaketa	32	86	% 37,2
Ebaluazio Globala	67,5	140	% 48,2

Aipatzekoa da UPV/EHU % 40tik hurbil dagoela –edo maila hori gainditzen duela– aztertutako arlo gehienetan, «Hondakinen» kasuan, non % 10era ere ez baita iristen, eta «Unibertsitate-jardueraren ingurumen-talkaren ebaluazioan» (% 13,3) izan ezik. Emaitzarik onenak «Irakaskuntza» arloan lortu dira (% 70,8); ondoren datoz «Ikerketa eta teknologiaren transferentzia» (% 67,9) eta «Iraunkortasuneko politika» (% 65,4). Puntuazio onenak lortu dituzten bi adierazleak bat datoz 2017an puntuazio handienak izan zituztenekin. Hala ere, 2018ko ebaluazioan gehien nabarmentzen dena da adierazleen erdiak nabarmen hobetu direla eta batek ere ez duela okerrera egin.

4. irudian, UPV/EHUK lortutako emaitzen eta beren ingurumen-jarduna ebaluatu duten Espainiako unibertsitateen batez bestekoaren arteko alderaketa erakusten da. Batezbestekoarekiko alderik handiena erakusten duten UPV/EHUren emaitzak ondoko hauek dira: alde batetik, «Hondakinak» eta «Unibertsitate-jardueraren ingurumen-talkaren ebaluazioa», non UPV/EHUren emaitzak batez bestekotik behera dauden; eta, bestetik, antolakuntza arloko adierazleak («Irakaskuntza» eta «Ikerketa eta ezagutzaren transferentzia»), nabarmendu behar baita UPV/EHUren arlo horietako emaitzak ebaluatu diren Estatuko unibertsitateen batez bestekoa baino dezentez gorago daudela.



4. irudia: UPV/EHUK 2018an lortutako puntuazioaren alderaketa (%) diagnostikoa osatu duten Espainiako unibertsitateen batezbestekoarekiko, esparruz esparru.

3.1.6. Ikastegietako konpromisoa ingurumenarekiko

Ikastegietako Ingurumena Hobetzeko Taldeek (IHT) eta Ingurumen Batzordeek Iraunkortasuneko Zuzendaritzaren sostengua dute etengabeko hobekuntza iraunkortasunaren arloan bermatzea xede duten ekintzak diseinatu, egikaritu eta ebaluatzeko.

2018. urtean, ikastegietako IHTei eta Ingurumen Batzordeei aholkularitza eta informazioa eman zaie ingurumena kudeatzeko sistemen egiaztagirien inguruko eskariak betetzeko eta auditoretzak prestatzeko orduan.

4. Taulan Ekoscan Plus egiaztagiria duten unibertsitate-ikastegiak zehazten dira. [Ekoscanek](#) auditoretza bat eskatzen du hasieran, eta beste lau jarraipen-auditoretza, ondoren, egiaztagiria lortzeko.



2. taula: Ekoscan Plus egiaztagiria duten unibertsitate-ikastegiak

Unibertsitate-ikastegi edo eraikina	Eguneratua (x)
Carlos Santa María Zentroa	x
Ignacio Maria Barriola Zentroa	
Bilboko Ingeniaritza Eskola (I. eraikina)	x
Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola (Donostia)	x
Vitoria-Gasteizko Ingeniaritza Eskola	x
Ekonomia eta Enpresa Fakultatea (Donostia)	
Ekonomia eta Enpresa Fakultatea (Elkano)	x
Bilboko Hezkuntza Fakultatea	x
Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea	x
Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea (Gipuzkoako atala)	
Arabako Campuseko Errektoreordetza	
Gipuzkoako Campuseko Errektoreordetza. Julianategi	

Unibertsitate-ikastegiek iraunkortasunarekin eta ingurumen-kudeaketarekin duten konpromisoari buruzko informazioa bildu da eta egiaztatu da ikastetxe gehienek konpromiso horiei eutsi egin dietela azken urteotan, eta beste batzuek, berriz, hainbat arrazoi direla medio, atzeratu edo utzi egin dituztela konpromiso horiek.

Iraunkortasuneko Zuzendaritzak sostengu teknikoa ematen du Ingurumen Hobekuntzarako Planak (IHP) abian jartzeko konpromisoa duten unibertsitate-ikastegietako IHPak mantendu, aktibatu edo, kasua hala bada, berraktibatzeke. Plan horietan honako hauek sartzen dira: ingurumena hobetzeko taldea sortzea, urteko ingurumen-erronkak hautatzea eta ikastetxearen IHP egitea, jarraitzea eta ebaluatzea. Sostengu eta aholkularitza hori jasotzeko interesa duten ikastegien artean daude ondoko hauek:

Arabako Campusa:

- Vitoria-Gasteizko Ingeniaritza Eskola
- Ekonomia eta Enpresa Fakultatea

- Hezkuntza eta Kirol Fakultatea
- Farmazia Fakultatea

Bizkaiko Campusa:

- Bilboko Ingeniaritza Eskola
- Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea
- Zientzia eta Teknologia Fakultatea
- Ekonomia eta Enpresa Fakultatea
- Hezkuntza Fakultatea
- Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea

Gipuzkoako Campusa:

- Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola
- Ekonomia eta Enpresa Fakultatea
- Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea
- Informatika Fakultatea
- Psikologia Fakultatea
- Kimika Fakultatea

3.1.7. Beste batzuk: ekitaldiak eta biodibertsitatea

EKITALDI IRAUNGARRIAK

UPV/EHUko Iraunkortasuneko Zuzendaritzak ekitaldien diseinuan eta garapenean ingurumen-irizpideak aintzat hartzearen aldeko apustua egin du, IHOBE - Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoaren **Erronka Garbia** proiektuak gomendatzen duen bezala. Integrazio horrek, ingurumenaren babesa sustatzeaz gainera, hainbat onura dakartza antolakuntzaren ardura izan duten erakundeentzat eta, aldi berean, ondare positiboa uzten du inplikaturiko parte-hartzaile eta eragileentzat.



Erronka Garbia Eusko Jaurlaritzaren egiaztagiri bat da. Ekitaldia gauzatzean sorturiko ingurumentalka negatiboak murrizteko helburuarekin, haien diseinuan eta antolakuntzan ingurumen-neurriak sartzen dituzten ekitaldiak aitortzen ditu.

2017. urtean antolatu zen ingurumenaren aldetik iraungarria izan zen UPV/EHUko lehen ekitaldia. Unibertsitate Irakaskuntzako Estatu Sareak eta Berrikuntza, Gizarte Konpromiso eta Kulturgintzako Errektoreordetzak «Unibertsitatea eta garapen iraungarria: etorkizuna baldintzatzen duten ikaskuntza esperientziak» izenburuarekin RED-U 2017 Nazioarteko Biltzarra antolatu zutenean, hainbat

jarduketa jarri ziren abian ekitaldiak ingurumena errespetatu eta Erronka Garbia egiaztagiria lor zezan. Lehen ziurtagiri horretatik, UPV/EHUK bakarka edo beste batzuekin antolatu dituen hainbat ekitalditan, ingurumen-iraunkortasunaren aldeko apustua egin eta «Erronka Garbia» zigilua eskatu du.

Gainera, [Bizkaia Aretoak](#) –eraikin horretan gauzatzen dira UPV/EHUK antolatutako ekitaldi ugari– ekitaldien antolakuntzarako hainbat gomendio biltzen dituen dekalogo bat prestatu du. Dekalogo horrek ingurumen-kudeaketaren arloko neurriak hartzen ditu barnean

BIODIBERTSITATEA

UPV/EHUKo Ikasleen Elkarteak **Lurraren egunaren** harira antolatutako erakusketa «[Amassunnu](#)».

Erakusketa horretan, bisitariak Omar Rodriguez da Silva margolari indigenaren margolan eta eskulturen lagin bat ikusteko aukera izan zuten, Amazonas oihana babesteko deia ardatz hartuta. Erakusketa 2018ko apirilaren 18tik 27ra bitartean egon zen irekita, Bizkaiko Campuseko Liburutegiko 2. solairuan.



3.2. Lankidetzaren sustatzea unibertsitate-erkidegoan UPV/EHUk dituen iraunkortasun-erronkei aurre egiteko

3.1 apartatuan aipatutako unibertsitateko ikastegi eta campusen kudeaketa iraungarria bultzatzeko, beharrezkoa da unibertsitate-erkidego osoak parte hartzea; aldi berean, unibertsitate-erkidegoak onura atera dezake parte-hartze horretatik prestakuntza eta ikerketa arloetan. Ondorioz, administrazio eta zerbitzuetako langileen (AZP), irakasle eta ikertzaileen eta ikasleen arteko lankidetzaren sustatzeko hainbat ekintza abiarazi dira, betiere, gure jarduerak eragiten duten inpaktua murrizteko xedearekin. Ekintza horien artean aipatzekoak dira Campus Bizia Lab eta BerrAktibatu+ Unibertsitateak programak.

3.2.1. Campus Bizia Lab Programako Lehen Deialdia (2017/18 ikasturtea)

[Campus Bizia Lab](#) (CBL) programa [Erasmus University Educators for Sustainable Development](#) proiektutik eratorritako ekimena da, non UPV/EHUk parte hartu baitzuen 2013-2016 bitartean. CBLren asmoa lankidetzaren prozesu bat abiaraztea da UPV/EHUko irakasle, administrazio eta zerbitzuetako langile eta ikasleen artean, unibertsitate beraren barruko iraunkortasun-erronkei erantzutearren.



CBL programaren bitartez, unibertsitateko kideek aukera izango dute, campusak laborategi gisa erabiliz, iraunkortasunarekin lotutako benetako arazoak jorratzen dituzten proiektuetan lagunduz lan egiteko. Hainbat diziplinako lankidetzaren bitartez, sinergia berriak sortzen dira eta, horien ondorioz, erronka konplexuak ebazteko aplikatu daitezkeen ikuspuntu berritzaile eta integratzaileak eratzen dira. CBLk ikasleen artean eragin handia izango duen praktika bat sustatu nahi du (iraunkortasunari loturiko erronketan oinarritutako diziplinari ikaskuntza). Praktika horrek curriculum izaera izango du, eta Gradu Amaierako Lanen (GRAL) eta Master Amaierako Lanen (MAL) bitartez gauzatuko da.

2016/2017 ikasturtean [esperientzia pilotu](#) bat egin ondoren, 2017 uztailaren 11n argitaratu zen [CBLren lehen deialdia](#) honako helburu espezifiko hauekin:

- UPV/EHUko ikastegi guztietan CBL programa garatzea, horrela Unibertsitatearentzat praktika iraungarriak sortu ahal izateko.
- Unibertsitateko kideek gaitasunak lortzea, elkarrekin etorkizun iraunkorrago bat sortzeko ekarpenak egite aldera.

- Lanerako tresna bat diseinatu, garatu eta ebaluatzea, UPV/EHUko campusetan iraunkortasunari lotutako inpaktu handiko ikaskuntza prozesu arrakastatsuak gauzatu ahal izateko.
- CBL proiektu instituzionala artikulatzea eta ikusgarri egitea, pixkanaka, bere jardute-eremua zabalduz joan eta, UPV/EHUko titulazio guztiak barnean harturik, maila anitzeko praktika iraungarriak sor ditzan.

Erronkak modu parte-hartzailean hautatu ziren 2017ko ekainaren 22an eta 23an Bizkaia Aretoan (Bilbo) [«Iraunkortasunerako hezkuntza»](#) izenburupean egindako mintegi batean. Ondoko hauek izan ziren:

- 1. erronka Trantsizio energetikoa. Energia kontsumoa minimizatzea eta, besteak beste, energia berriztagarriak sustatzea bideratutako ekintzak.
- 2. erronka Ekonomia zirkularra. Baliabide naturalen erabilera arduratsua sustatu nahi duten ekintzak, berrerabiltzea, birziklatzea eta beste balorizazio erak eta hondakinen kudeaketa sustatzea, erosketa arduratsua eta iraunkorrak ez diren kontsumo ohiturak sustatzea, besteren artean.
- 3. erronka Hiri-baratzeak campusetan. Unibertsitate-baratzeak sortzea eta erabiltzea xede duten ekintzak. Baratze horiek, hezkuntza-bitarteko gisa, iraunkortasunaren aldeko aldaketak sustatzen dituzten hezkuntza-prozesuak bideratzeko guneak izango dira.
- 4. erronka Campusetako mugikortasuna eta hiri plangintza. Garraio publikoa edo karbonorik gabeko garraioa (bizikleta) sustatzea, espazioaren banaketa hobetzea eta campusetako jardueren banaketa orekatua bermatzea eta campusetako bizi kalitatea areagotzea xede duten ekintzak, besteren artean.
- 5. erronka Unibertsitate osasungarria. Elikadura eta bizi ohitura osasuntsua sustatzea, elikadura burujabetza eta segurtasuna babestea eta ingurune osasuntsuak eta laneko giro bideratzaileak sortzea xede duten ekintzak, besteren artean.
- 6. erronka Kultura eta unibertsitate-erkidego iraungarria. Unibertsitate-komunitateak iraunkortasunari dagokionez duen hautesmenaren ezagutzan sakontzea, ingurumen arloko boluntarioria sustatzea eta bere aplikazioak aztertzea eta iraunkortasuna bideratzeko eta nortasunaren osagai gisa (kultura ondarea eta kultura sortzailea) kulturak duen papera ustiatzea xede duten ekintzak, besteren artean.
- 7. erronka Eraldaketarako hezkuntza. Hiritartasun kritiko, arduratsu eta inplikatu garatzea eta egungo errealitatea eraldatzeko xedearekin elkartasuna eta aniztasuna, inklusioa, generoen arteko berdintasuna eta kultura artekotasuna sustatzea xede duten ekintzak, besteren artean.
- 8. erronka Beste erronka batzuk

Lehen deialdian, ia erronka guztiei heltzen zieten proiektuen eskaerak jaso ziren, 4. erronka salbuetsita (campusetako mugikortasuna eta hirigintza-plangintza); nolana ere, zenbait proposamenetan zeharka egiten zitzaion aurre erronka horri.


Deialdi hori 2017ko urriaren 13an erabaki zen Berrikuntza, Gizarte Konpromiso eta Kulturgintzako Errektoreordearen ebazpenaren bitartez. Hala, 18 proiektutarako dirulaguntzak onartu ziren. 178 pertsonak hartu zuten parte, unibertsitate-erkidegoko kide eta laguntzaileen artean. 3. Taulan proiektuen izenburua, unibertsitate-ikastegia eta koordinatzaileak zerrendatzen dira.

3. taula: 2017/18 ikasturtean garatzeko xedearekin, lehen deialdian onartutako Campus Bizia Lab Proiektuen zerrenda, unibertsitate-ikastegia eta koordinatzailea

CAMPUS BIZIA LAB 2017/18			
	Proiektuaren izenburua	Ikastegia	Koordinatzailea
1	Diziplinarteko eta lankidetzako irakaskuntza praktikak egitea Arabako Campuseko Baratze Ekologikoan (ACBE)	Hezkuntza eta Kirol Fakultatea	Aritz Ruiz González
2	Baliabideen aprobetxamendua: erreaktibo kimikoen erosketa arduratsua eta iraungarria	Vitoria-Gasteizko Ingeniaritza Eskola	Gorka Gallastegui Ruiz de Gordo
3	UPV/EHUren Ingurumen Arrasto Korporatiboari loturiko gizarte eraginak aztertzea eta modelizazioa egitea SOCA, openLCA eta Ecoinvent erabiliz	Ekonomia eta Enpresa Fakultatea	Artizar Erauskin Tolosa
4	Elikagaien eskaintza eta kontsumoa UPV/EHU: ingurune osasungarria sustatzea	Farmazia Fakultatea	Marta Arroyo Izaga
5	UPV/EHUren ingurumen eraginen modelizazioa egitea openLCA eta Ecoinvent erabiliz, Ingurumen Arrasto Korporatiboa kalkulatzeko	Bilboko Ingeniaritza Eskola	Gorka Bueno Mendieta
6	Baliabideen erabileraren eta isurketen inbentarioa egitea UPV/EHUren Ingurumen Arrasto Korporatiboa kalkulatzeko	Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola	Iñigo León Cascante
7	Gipuzkoako Campusean hiri-baratze bat garatzeko proiektua: curriculum- eta erkidego-iraunkortasunerako tresna bat.	Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola	Oihana Barrutia Sarasua
8	Bizkaiko Campusean laborategiko substantzia eta materialen kudeaketa arduratsua sustatzeko estrategiak.	Zientzia eta Teknologia Fakultatea	Sonia Arrasate Gil
9	Bizkaiko Campuseko hondakinak minimizatzeko estrategiak	Zientzia eta Teknologia Fakultatea	Ibone Ametzaga Arregi
10	Diziplinarteko komunitate bat sortzea, energia trantsizioa abiarazteko Bilboko Hezkuntza Fakultatean	Bilboko Hezkuntza Fakultatea	Joserra Díez López
11	Energia berriztagarrien erabilera Unibertsitateko eraikin ezberdinetan	Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola	María González Alriols

12	Erabaki iraungarriak hartzean gaitasun sozialak garatzea: ekonomia eta enpresarako eta gizarte hezkuntzarako simulagailu bat	Ekonomia eta Enpresa Fakultatea	Noemi Peña Miguel
13	Unibertsitatea, gizartearen eraldatzeko eragile gisa. Ikasleak, irakasleak eta administrazio eta zerbitzuetako langileak Garapen Iraunkorreko Helburuak lortzeko esfortzuan inplikatzekeo ekintzak	Ekonomia eta Enpresa Fakultatea	Marta Barandiaran Galdós
14	Hozketa kriogenikoa aplikatzea olio mineral konbentzionalen emultsioak ordezkatzeko	Bilboko Ingeniaritza Eskola	Luis Norberto López de Lacalle Marcaida
15	Ingurumen faktoreak neurtzea open hardware erabiliz	Bilboko Ingeniaritza Eskola	Javier Bilbao Landatxe
16	Zuntz naturalen balorazio iraunkorra unibertsitate campusean erabilgarriak izan daitezkeen osagaiak diseinatu eta fabrikatzeko	Bilboko Ingeniaritza Eskola	Alberto López Arraiza
17	Kultura baliabideen eta ohituren iraunkortasuna	Ekonomia eta Enpresa Fakultatea	Victoria Ateca Amestoy
18	Haize-sorgailu eolikoaren optimizazioa: potentzia hobetzeko proposamenak eta eraikuntza-material alternatiboaren inguruko proposamenak	Vitoria-Gasteizko Ingeniaritza Eskola	Ana Boyano Murillo

5. irudian parte-hartzaileen banaketa irudikatzen da, taldearen eta generoen arabera. Nabarmentzekoa da programan parte hartu duten irakasle eta ikertzaileen proportzioaren hazkundera, 2016/17 ikasturteko esperientzia pilotuarekin alderatuta.



5. irudia: Campus Bizia Lab programako lehen deialdian parte hartu zuten pertsonen kopurua, unibertsitate-erkidegoko taldeen (goian) eta generoen arabera (behean).

2017/18 ikasturtean, koordinaziorako eta esperientziak trukatzeko zenbait bilera antolatu ziren. Esan behar da, berorietan, campus barruko eta campusen arteko sinergia ugari sortu zirela. Gainera, 2018ko ekainaren 14an eta 15ean, titulu honetako jardunaldi bat antolatu zen: [«Iraunkortasunerako erronkak UPV/EHU: Campus Bizia Lab»](#). Jardunaldia Bizkaia Aretoan (Bilbo) gauzatu zen, eta unibertsitate-erkidego osoari zuzendu zitzaion. Jardunaldiaren asmoa unibertsitateko kideentzat eta unibertsitatearen iraunkortasun-

erronkei lankidetzan erantzuteko interesa zuten beste hainbat eragileentzat topagune izatea izan zen. Guztira, 73 pertsonak hartu zuten parte (44 emazteki eta 29 gizonezko).



Azkenik, Campus Bizia Lab Programako proiektuen emaitzak zabaltzeko xedearekin, [gune](#) bana izendatu zaio proiektu bakoitzari Iraunkortasuneko Zuzendaritzaren webgunean.

1. **eranskinean** Campus Bizia Lab programaren lehen edizio honetako proiektuetatik eratorritako argitalpenak zehazten dira.

3.2.2. Campus Bizia Lab Programako Bigarren Deialdia: 2018/19 ikasturtea

Programaren lehen deialdian abian jarritako proiektuen jarraipena errazteko eta proiektu berriak abian jartzea sustatzeko, 2018ko uztailaren 13an [CBLren bigarren deialdia](#) argitaratu zen. Bigarren deialdi honetan, lehenengoan planteatutako erronkei eutsi zaie; hala ere, bi modalitate aurreikusten ditu: A eta B, proiektu berriak abian jartzeko bata eta indarrean dauden proiektuekin jarraitzeko bestea, hurrenez hurren.

Bigarren deialdi horretan, aurreko ikasturtean (2017/18) hasitako 18 proiektuetatik 15ek jarraitzea eskatu zuten. Gainera, 4 proiektu berri aurkeztu eta onartu ziren [Berrikuntza, Gizarte Konpromiso eta Kulturgintzako errektoreordearen 2018ko urriaren 11ko Ebazpenean](#). 4. Taulan proiektuen izenburua, unibertsitate-ikastegia eta koordinatzaileak zerrendatzen dira.


4. taula: 2018/19 ikasturtean garatzeko xedearekin bigarren deialdian onartutako Campus Bizia Lab Proiektuen zerrenda, unibertsitate-ikastegia eta koordinatzailea. Asteriskoa daramaten proiektuak bigarren edizio honetan hasitakoak dira.

CAMPUS BIZIA LAB 2017/18		
Proiektuaren izenburua	Ikastegia	Koordinatzailea
		a



1	Baliabideen aprobetxamendua: erreaktibo kimikoen erosketa arduratsua eta iraungarria	Vitoria-Gasteizko Ingeniaritza Eskola	Gorka Gallastegui Ruiz de Gordo
2	UPV/EHUn ingurumen eraginaren modelizazioa egitea openLCA eta Ecoinvent erabiliz, Ingurumen Azterna Korporatiboa kalkulatzeko	Bilboko Ingeniaritza Eskola	Gorka Bueno Mendieta
3	Energia berriztagarrien erabilera Unibertsitateko eraikin ezberdinetan	Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola	Alain Ulazia Manterola
4	Bizkaiko Campuseko hondakinak minimizatzeko estrategiak	Zientzia eta Teknologia Fakultatea	Ibone Ametzaga Arregi
5*	ARTEKOM. Trantsizio energetikorako artea: komunikazio- eta sentsibilizazio-estrategiak Bizkaiko Campusean	Arte Ederren Fakultatea	Carmen Marín Ruiz
6	Diziplinarteko eta lankidetzako irakaskuntza praktikak egitea Arabako Campuseko Baratze Ekologikoan	Hezkuntza eta Kirol Fakultatea	Daniel Zuazagoitia Rey-Baltar
7	Diziplinarteko komunitate bat sortzea, energia trantsizioa abiarazteko Bilboko Hezkuntza Fakultatean	Bilboko Hezkuntza Fakultatea	Joserra Díez López
8*	ZU2IRAUNKORRAK: Zientzien kulturaren eta giza zientzien kulturaren arteko zubi iraunkorrak Gipuzkoako Campusean	Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea	Antonio Casado da Rocha
9	Bizkaiko Campusean laborategiko substantzia eta materialen kudeaketa arduratsua sustatzeko estrategiak.	Zientzia eta Teknologia Fakultatea	Sonia Arrasate Gil
10*	Eskola-baratzea sortzea Bilboko Hezkuntza Fakultatean	Bilboko Hezkuntza Fakultatea	Teresa Zamalloa Etxebarria
11	Gipuzkoako Campusean hiri-baratze bat garatzeko proiektua: curriculum- eta erkidego-iraunkortasunerako tresna bat.	Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola	Oihana Barrutia Sarasua
12	Elikagaien eskaintza eta kontsumoa UPV/EHUn: ingurune osasungarria sustatzea	Farmazia Fakultatea	Marta Arroyo Izaga
13	Hozketa kriogenikoa aplikatzea olio mineral konbentzionalen emultsioak ordezkatzeko	Bilboko Ingeniaritza Eskola	Luis Norberto López de Lacalle Marcaida
14*	Errealitateak eraldatzen: Unibertsitatea eta erkidegoa lankidetzan, GrAL-etako Zerbitzu Ikaskuntzaren bidez hezkuntza humanizatze aldera	Hezkuntza eta Kirol Fakultatea	Elena López de Arana Prado
15	Unibertsitatea, gizartea eraldatzeko eragile gisa	Ekonomia eta Enpresa Fakultatea	Marta Barandiaran Galdós
16	Ingurumen faktoreak neurtzea open hardware erabiliz	Bilboko Ingeniaritza Eskola	Javier Bilbao Landatxe
17	Erabaki iraungarriak hartzean gaitasun sozialak garatzea: ekonomia eta enpresarako eta gizarte hezkuntzarako simulagailu bat	Ekonomia eta Enpresa Fakultatea	Noemi Peña Miguel
18	Kultura baliabideen eta ohituren iraunkortasuna	Ekonomia eta Enpresa Fakultatea	Victoria Ateca Amestoy

6. irudian parte-hartzaileen banaketa irudikatzen da, taldearen eta generoen arabera. 180 pertsonak hartu dute parte guztira. Emakumeen eta gizonen proportzioa erdi eta erdi mantendu da, gutxi gorabehera (86 emakume eta 94 gizon), eta parte-hartzaile gehienak irakasleak eta ikertzaileak izan dira orain ere.



6. irudia: Campus Bizia Lab programako lehen deialdian parte hartu zuten pertsonen kopurua, unibertsitate-erkidegoko taldeen (ezkerrean) eta sexuaren arabera (eskuinean)

2018ko azken hiruhilekoan, hainbat bilera antolatu dira esperientziak koordinatzeko eta trukatzeko xedez, eta etengabeko komunikazioa mantendu da eGelapi plataformaren bitartez.

3.2.3. BerrAktibatu+ Unibertsitateak programa

2018ko irailean jarri zen abian BerrAktibatu+ programa. BerrAktibatu+ [Aktibatu+ programaren](#) jarraipena da, non UPV/EHUko unibertsitate-erkidegoko 700 pertsona baino gehiagok hartu baitzuten parte 2018ko apiriletik uztailera bitartean. Berrikuntza gisa, lerro espezifiko bat garatu da unibertsitateetarako, proposatutako gaietan –ura, mugikortasuna, energia, erosketak, hondakinak edo elikadura–ingurumen-talka murrizteko.



BerrAktibatu+ Ekintza Plan Globala sareak –[Global Action Plan](#) (GAP)– bultzatutako programa da, Bizkaiko Foru Aldundiaren, Eusko Jaurlaritzaren, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren eta beste hainbatekin lankidetzan. GAP erakundeek osatutako nazioarteko sare bat da, aurrezkoa sustatuz gain, baliabideak eraginkortasun handiagoaz baliatu eta planetaren gainean eragindako inpaktu negatiboa gutxitzeko programak martxan jartzen dituena. Programa horien oinarrian daude ikuspegi positiboa, ideia errazak eta ekintza praktikoak, pertsonen ohiturak aldatzeko helburua harturik.

2018/19 ikasturtean, BerrAktibatu programan Bizkaiko Campuseko lau unibertsitate-ikastegi ari dira parte hartzen. 5. taulan zehazten dira ikastegiak, hautatutako gaiak eta planteaturiko helburuak.


Programa honek GAP sarearen sostengu teknikoa du, bera baita BerrAktibatu+en parte hartzen duten taldeei aholkularitza ematen diena, 124 pertsona, guztira. Taldeak irakasle eta ikertzailez, administrazio eta zerbitzuetako langilez eta ikasleaz osatua daude, eta azken horiek, programan parte hartzeagatik, hautazko kredituak aitortzea lor lezakete.

5. taula: BerrAktibatu+ Unibertsitateak programan parte hartzen duten unibertsitate-ikastegiak, hautatutako gaiak eta 2018/19 ikasturterako planteatutako helburuak

BERRAKTIBATU+ UNIBERTSITATEAK 2018/19		
Ikastegia	Gaia	Helburuak
Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea	Hondakinak	<ul style="list-style-type: none"> Fakultateko hiri-hondakinen gaur egungo kudeaketa (antolaketa eta sailkapena) aztertzea, hobetzeko aukerak identifikatzeko. Langile eta ikasleei kontzientzia harraraztea hondakin kopurua murriztu beharraz –izan ere, «hondakin onena sortzen ez dena baita»–, eta, saihestu ezin diren kasuan, haiek behar bezala sailkatu beharraz, modu egokian trata daitezen.
Zuzenbide Fakultatea (Bizkaiko Campusa)	Energia	<ul style="list-style-type: none"> Fakultatean energiaren erabileraren eraginkortasuna aztertzea, hala, informatuta egoteari esker, energia-kontsumoa eta CO₂ isuriak murriztu ahal izateko. Fakultateko langileen eta ikasleen ohituretan egin beharreko aldaketak zehaztea eta bultzatzea.
Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea	Elikagaigintza Hondakinak	<ul style="list-style-type: none"> Fakultatean sortutako hondakinen ekoizpena eta antolamendua zehaztea, haien kudeaketa hobetzeko, Fakultateko beste arazo bati lotuta: espazio erkideen erabilera arduratsua. Fakultateko jantokia erabiltzen duten pertsonen elikadura-ohiturak aztertzea, pertsona horientzat eta planetarentzat ohitura osasungarriak diren edo ez zehazteko.
Bilboko Hezkuntza Fakultatea	Energia	<ul style="list-style-type: none"> Fakultateko energia-kontsumoa murriztea eta energia-ekoizpenak eta -kontsumoak CO₂

		isurpenetan eta klima-aldaketan duten eragina ikusaraztea. <ul style="list-style-type: none"> Ikastetxeko langileak eta ikasleak kontzientziaztea energiaren eta lehengaien erabilerari buruzko ohiturak aldatzearen inguruan gogoeta egin dezaten.
--	--	--

7. irudian, 2018aren amaierako parte-hartzaileen kopurua ageri da, ikastegiaren, taldearen eta sexuaren arabera bereizita. Nabarmentzekoa da Hezkuntza Fakultatean parte hartu duten ikasleen kopurua; izan ere, bi irakasgaitan txertatu da curriculum: «Garapen iraungarrirako hezkuntza», Gizarte Hezkuntzako graduan, eta «Natur zientziak Lehen Hezkuntzako ikasgelan I», Lehen Hezkuntzako graduan. Halaber, azpimarratzekoa da parte-hartzaileen hiru laurden emaztekiak direla.



7. irudia: 2018/19 ikasturtean BerrAktibatu+ Unibertsitateak programan parte hartu duten pertsonen kopurua, unibertsitate-erkidegoko taldearen (goian ezkerretara), sexuaren eta ikastegiaren arabera (behean).

[BerrAktibatu+ Unibertsitateak programarako webgune bat](#) sortu da UPV/EHUren orrialdean. Gune horretan lantalde batzuen eta besteen aurrerapenak eta emaitzak partekatzen dira, bai eta sortutako materialak ere. 8. irudian erakusten dira, adibide gisa, sortutako material batzuk.



8. irudia: BerrAktibat+ Unibertsitateak programaren markoan sortutako sentsibilizaziorako eta kontzientziatorako materialen adibideak.

3.3. Garapenerako Unibertsitate Lankidetzaren bultzatzea

Zuzendaritza honek, [UPV/EHUko Garapenerako Lankidetzaren Bulegoaren](#) bidez, deialdi bat kudeatzen du, urtero, unibertsitate-erkidegoak gizarte bidezkoagoa eta iraungarriagoa lortzera bideratutako proiektuetan parte hartzea sustatzeko eta laguntzeko.

Deialdi honek UPV/EHUk Garapen Iraunkorrerako Unibertsitate Lankidetzarekin duen konpromisoa zehazten du, eta ikasleen, irakasle eta ikertzaileen, eta administrazio eta zerbitzu-erakunde langileen (AZP) eskura jartzen ditu irakaskuntzaren eta prestakuntzaren esparruetan garapen iraunkorrerako aldaketak sortuko dituzten proiektuak abian jartzeko bitartekoak; horien artean, garapenari aplikatutako ikerketa; informazioaren, ezagutzaren eta teknologiaren transferentzia; garapen bidean dauden herrialdeetako unibertsitateen sendotze instituzionala, eta baztertutako edo baztertuak geratzeko arriskuan dauden taldeen eraldaketarako eta inklusiorako hezkuntza.

2018ko ekainaren 29an argitaratu zen [Berrikuntza, Gizarte Konpromisoa eta Kulturagintzako Errektoreordetzaren Garapen Iraunkorrerako Unibertsitate Lankidetzako proiektuetarako dirulaguntzen deialdia](#). Laguntza-deialdi horretara 10 proiektu-proposamen aurkeztu ziren eta, haiek ebaluatu ondoren, [2018ko irailaren 7ko Ebazpenaren](#) bidez, Bolivian, Euskadin, El Salvadorren, Ekuadorren, Etiopian eta Kolonbian 7 proiektu abian jarri eta garatzeko dirulaguntzak eman ziren. 6. taulan zehazten dira proiektuen izenburua, haien arduradunak zein diren eta bakoitzari izendatutako zenbatekoa.

6. taula: 2018ko deialdian onartutako GUL proiektuen zerrenda: izenburua, pertsona arduraduna eta emandako finantzaketa

GUL 2018/19		
Proiektuaren izenburua	Arduraduna eta Erakundea	Jasotako finantzaketa (€)
FIA-UESen eta UPV/EHUren arteko unibertsitate-lankidetzaren sendotzea zientzia- eta teknologia-ezagutzak trukatzeko (III. fasea)	Aitor Gómez Arribillaga <i>Mugarik Gabeko Ingeniaritza (MGI)</i>	11.018,00
ARCADIA 5. «Arkitektura eta garapenerako lankidetzaren kongresua eta Staff Week»	Alex Michelena Etxeberria <i>Arkitektura GET</i>	7.088,00
Biomimesiko 2. faseari buruzko ikasketen nazioarteko, unibertsitate arteko eta erakunde arteko sarea indartzea (I+3 international biomimicry network), GIHak toki mailako praktikan txertatzeko	Unai Tamayo Orbegojo <i>Ekonomia eta Enpresa Fakultatea</i>	10.886,00
Mentoring- eta tutorizazio-proiektua ekintzailetza produktiboetarako	Gorka Moreno Márquez <i>Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea</i>	2.930,00

Software libreko mikro-EETE pilotua informazioaren Zway teknologietako unibertsitate-ikasleentzat.	Jose Daniel Gutiérrez Porset <i>Bilboko Ingeniaritza Eskola</i>	8.499,00
Emakumeen kasuan, emozioei aurre egitea eta haiek arautzen jakitea, pertsona horien ongizate indibiduala eta komunitarioa hobetzeko, Kolonbiako gatazka armatuaren testuinguruan.	Darío Páez Rovira <i>Psikologia Fakultatea</i>	7.047,00
Prestakuntza eta ikerketako departamentu-zentro bat ezartzea nasa-yuwe hizkuntza biziberritzeko Tõexeko gordeleku indigenan, Cauca udalerrian.	Gurutze Ezkurdia Arteaga <i>Bilboko Hezkuntza Fakultatea</i>	4.425,00

Era berean, 2018. urtean zehar, [Garapenerako Unibertsitate Lankidetzako Proiektuen 2017ko deialdiaren](#) bitartez diruz lagundutako proiektuen jarraipena egin da. 7. taulan zehazten dira proiektuen izenburua, haien arduradunak eta 2017ko proiektuei esleitutako zenbatekoak, 2017an eta 2018an egikaritzeko.

7. taula: 2017ko deialdian onartutako GUL proiektuen zerrenda: izenburua, arduraduna eta esleitutako finantzaketa

GUL 2017/18		
Proiektuaren izenburua	Arduraduna <i>Erakundea</i>	Jasotako finantzaketa (€)
Unibertsitate-lankidetzaren sendotzea El Salvadorreko Ingeniaritza eta Arkitektura Fakultatearen (FIA-UES) eta UPV/EHUren artean, zientzia eta teknologia ezagutzak trukatzeko (2. fasea)	Aitor Gómez Arribillaga <i>Mugarik Gabeko Ingeniaritza (MGI)</i>	13.000,00
Buenos Airesko metropoli-eremuan gizarte eta hezkuntza aldetik zaugarritasun egoeran dauden ikasleen Irakaskuntza Ertainetako irakasleak prestatzeko proposamena, alkoholaren eta beste droga batzuen kontsumoa eta indarkeria-egoerak lantzeko.	Patricia Insua Carretani <i>Psikologia Fakultatea</i>	6.220,00
Aurre egitea, barkamena, adiskidetzaren eta beste erronka batzuk Kolonbiako gatazka armatuaren biktima izan diren emakumezkoentzat	Darío Páez Rovira <i>Psikologia Fakultatea</i>	13.000,00

Proiektu horien emaitzetatik eratorritako argitalpen zientifiko garrantzitsuenak memoria honen **2. eranskinean** jasotzen dira. Halaber, [UPV/EHUko GUL proiektu horietarako gune bat](#) prestatu da UPV/EHUko Garapenerako Lankidetzaren Bulegoaren webgunean.

3.4. Unibertsitate-erkidegoari prestakuntza ematea eta lekuak eskaintzea, iraunkortasunaren esparruan proiektu berritzaileak garatzeko

UPV/EHUren helburua ikasleei kalitateko prestakuntza ematea da, eta unibertsitatetik igarotzean, esperientzia aberasgarria metatzeaz gainera, ikasleak

gai izatea tokiko erronkei nahiz mundu mailakoei erantzuteko eta modu etiko, aktibo eta sortzailean jarduteko, betiere gizarte-eraldaketaren alde eginez. Era berean, unibertsitate-erkidego osoan, lankidetzaren berdintasuna, pentsamendu kritikoa, sormena, gizarte-konpromisoa eta gisako balioak sustatzea bilatzen du. III. ardatzaren [–UPV/EHUren 2018/2021eko Plan Estrategikoaren](#) gizartearekiko harremana– ekintza funtsezkoenetako bat «Unibertsitatea garapen iraunkorra, inklusioa eta gizarte-konpromisoa sustatuko dituen erakunde bihurtzea» da.

Horretarako, Iraunkortasuneko Zuzendaritzak prestakuntza osagarriko eskaintza bat garatu du iraunkortasunaren arloan. Eskaintza hori zeharkakoa da diziplina guztiekiko, eta aurrez aurreko eta urrutiko modalitateetan ematen da. Jarraian, 2018an antolatutako ikastaroak eta tailerrak deskribatzen dira.

3.4.1. Ikasleentzako prestakuntza

3.4.1.1. Aurrez aurreko prestakuntza: Garapenerako Lankidetzaren eta Hezkuntzaren arloan, UPV/EHUko ikasleentzako ikastaro monografikoak

2004. urteaz geroztik, UPV/EHUko Garapenerako Lankidetzaren Bulegoak urtero antolatzen ditu garapenari eta lankidetzari buruzko ikastaro monografikoak UPV/EHUko hainbat unibertsitate-ikastegirekin, [Nazioarteko Lankidetzaren eta Garapenari buruzko Ikasketa Institutuarekin](#) (Hegoa) eta EAEko Garapenerako Gobernuaren Kanpoko Erakundeekin (GGKE) koordinaturik. Hasi zenetik, 100 ikastaro monografiko baino gehiago eman dira, UPV/EHUko hiru campusetako unibertsitate-ikastegietan.

Ikastaro horietan, UPV/EHUko ikasleek mota askotako gai ugari sakontzeko aukera dute, ondoren aipatzen diren hauetan hain zuzen ere: hezkuntzatik ingurumeneraino; elikadura-segurtasunetik genero-ikuspegiraino; parte-hartze demokratikotik eta pertsonen segurtasun politikotik garapenaren teknologia alderditaraino; osasunaren hainbat alderditatik giza eskubideei loturiko arazoetaraino; desiragarria den hazkunde ekonomikoaren baldintzetatik finantzen aldakortasunak eta merkatuen globalizazioak dakartzaten arazoetaraino.

Ikastaro monografiko bakoitzak 50 orduko iraupena du; beraz, 2 hautazko kreditu aitortzen dira graduko irakaskuntzetan. 50 ordu horietatik, 20 ordu ikasgelan aurrez aurre emandako edukiei dagozkie eta beste 30 hitzaldi edo mintegietara joanez eta/edo lanak eginez beteko dira. Ikastaro monografikoetan parte hartzea nahitaezkoa da beren praktikak edo Gradu Amaierako Lana Garapenerako Lankidetzako proiektuetan egin nahi dituzten ikasleentzat.

Ikastaroak ematen inplikaturiko irakasle gehienak UPV/EHUko irakasleak dira, bai eta Euskadiko GGKEtako langileak eta Garapenerako Lankidetzaren Bulegoak lankidetzaren akordioak edo -hitzarmenak dituen unibertsitate-elkarteetako langileak ere. Hona ikastaro horietan parte hartu duten GGKE batzuk: Mugarik Gabeko Ekonomistak, Mugarik Gabe, Haurralde Fundazioa, Circulo Solidario,

Kultura Comunication Desarrollo (KCD), Medicus Mundi-Gipuzkoa edo Mugarik Gabeko Ingeniaritza (MGI).

Ikastaroen edukiak ematen diren titulazioetara egokituta daude. Ikastaroetako programak eskuragarri daude honako esteka honetan: <https://www.ehu.es/es/web/oficop/2017-2018-ikastaro-monografikoak>

2017/2018 ikasturtean 8 ikastaro monografiko eman dira guztira. Berorietan, 191 ikaslek hartu zuten parte, horietatik % 76 emaztekiak zirelarik. Lau ikastaro Gipuzkoako Campusean eman ziren, hiru ikastaro Bizkaiko Campusean eta, azkenik, bat eman zen Arabako Campusean. Zortzi ikastaroetatik bi oso-osorik euskaraz eman dira. 8. taulan ikastaroen izenburuak, unibertsitate-ikastegiak, datak eta ikasleen kopurua zehazten dira, generoaren arabera banakatuta.

8. taula: 2017/18 ikasturtean emandako garapenerako lankidetzako ikastaro monografikoak: izenburuak, ikastegiak, datak eta parte-hartzaileak, sexuaren arabera berezita.

Ikastaroaren izenburua	Ikastegia	Datak	Guztira	Emakumezkoak	Gizonezkoak
Giza garapena xedetu duen lankidetzarako eta teknologiarako sarrera	Bilboko Ingeniaritza Eskola	2017/09/29 – 2017/12/15	20	13	7
Garapenerako lankidetzarako tailer praktikoak	Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea	2018/03/24 – 2018/04/02	37	31	6
Garapenak eta Lankidetzak Ekonomia Globalean 2018an dituzten erronkak	Ekonomia eta Enpresa Fakultatea (Sarriko)	2018/02/23 – 2018/03/23	30	18	12
Garapenerako lankidetzarako sarrera	FEFA/ Psikologia Fakultatea	2017/09/18 – 2017/09/26	26	20	6
Hezkuntza eta lankidetzarako garapenean ikastaro monografikoa	FEFA/ Psikologia Fakultatea	2018/06/04 – 2018/06/07	28	25	3
Beste ekonomia bat posible da: ekonomia solidario eta iraugarri bat ekitatez eraikiz	Ekonomia eta Enpresa Fakultatea (Donostia)	2017/02/22 – 2018/03/22	25	20	5
Lankidetzarako eta Arkitektura	Arkitektura GET	2017/12/15 – 2018/05/15	6	4	2
Garapen eta lankidetzarako solidarioa	Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea (Vitoria-Gasteiz)	2017/10/02 - 2017/11/27	19	16	3
			191	147	44

2018/19 ikasturte akademikoan eskaintza horrekin jarraitu da. Nabarmendu behar da 2018/19 ikasturte honetatik aurrera murriztu egin dela garapenerako lankidetzari buruzko edukiei eskainitako ordu kopurua; izan ere, eduki horiek [Garapenerako unibertsitate-lankidetzari buruzko online ikastaroan](#) lantzen dira, eta ikastaro monografikoak, berriz, ematen diren zentroaren ezagutza-arloaren arabera aldatzen diren eduki espezifikotan zentratzen dira, batik bat.

2018ko azken hiruhilekoan antolatu dira 9. taulan zehazten diren garapenerako lankidetzari buruzko bi ikastaro monografikoak.

9. taula: Azken hiruhilekoan antolatutako garapenerako lankidetzari buruzko ikastaro monografikoak, zer ikastegitan eman diren, datak eta parte-hartzaileak, sexuaren arabera bereizita.

Ikastaroaren izenburua	Ikastegia	Datak	Guztira	Emakumezkoak	Gizonezkoak
Giza garapena xedenduen lankidetzarako eta teknologiarako sarrera	Bilboko Ingeniaritza Eskola	2018/09/28 – 2018/12/19	13	8	5
Garapenerako lankidetzarako sarrera	FEFA/ Psikologia Fakultatea	2018/09/17 – 2018/09/19	42	34	8

Ikastaroan parte hartu duten ikasleen eta irakasleen balorazioa oso positiboa izan da. Parte hartu duten ikasleek ondoen baloratu dituzten alderdien artean daude jorratutako gaien interesa eta baliagarritasuna.

3.4.1.2. Online prestakuntza

2018/19 ikasturtean, lehen aldiz eta [eGelapi](#) plataformaren bidez, online-ko bi ikastaro eskaini dira iraunkortasuna eta garapenerako unibertsitate-lankidetzari gai hartuta. Bi ikastaro horiek UPV/EHUko graduiko ikasleei zuzenduta daude, euskaraz eta gaztelaniaz eskaini dira, eta 37,5 orduko dedikazioa eskatzen dute. Ordu horiek hautazko 1,5 krediturekin baliozkotu ahalko dira graduiko irakaskuntzetan.



Online ikastaroa: «Bat egin nahi duzu iraunkortasunaren erronkarekin?»

Iraunkortasunari eta erronka nagusiei lotutako alderdietan murgildu nahi duten eta gai horiei hezkuntzatik eta konpromiso sozialetik ekin nahi dieten graduko ikasleei zuzenduta dago.

Edukiak: 1) Iraunkortasunari buruzko gure pentsamoldea berregokitzea; 2) Tokiko iraunkortasuna; 3) Eskualde mailako iraunkortasuna; 4) Ekimenen eta kontzeptuen arteko harremana.

Ikastaroaren lehen edizio honetan –2018ko urriaren 1etik azaroaren 9ra bitartean eman zen– 75 pertsonak hartu zuten parte (42 emazteki eta 32 gizonezko). Horieta 50ek gaztelaniaz egin zuten ikastaroa eta 25ek euskaraz. Lortutako emaitzak ikusita, online-ko ikastaro berri bat programatu da 2018/19 ikasturteko bigarren lauhilekoaren hasierarako (2019ko otsaila).



Online ikastaroa: «Garapenerako unibertsitate-lankidetzaz»

Garapenerako Unibertsitate Lankidetzan murgildu nahi duten graduko ikasleei zuzenduta dago.

Edukiak: 1) Garapenerako Lankidetzaz: iragana, oraina eta etorkizuna; 2) Garapenerako Lankidetzaren eragileak, tresnak eta tipologia; 3) Garapenerako Unibertsitate Lankidetzaz (GUL).

Online ikastaroaren lehen edizio hau aurrekoaren data berdinetan eman zen, hau da, 2018/19 ikasturtearen hasieran. 110 pertsonak hartu zuten parte (80 emazteki eta 30 gizonezko). 77 lagunek gaztelaniaz egin zuten ikastaroa eta 33k euskaraz. Izan duen eskari handia eta lortutako emaitzak ikusita, online-ko beste ikastaro bat programatu da 2018/19 ikasturteko bigarren lauhilekoaren hasierarako (2019ko otsaila).

Formatuak arrakasta izan duenez, eta 2030 Agendaren ikuspegia eta Garapen Iraunkorreko Helburuak (GIH) Gradu Amaierako Lanean (GRAL) sartu nahi dituzten graduko ikasleei laguntzeko, online-ko hirugarren ikastaro bat diseinatzen ari dira.

Diseinu hori Arabako Campusean probatuko da, 2018/19 ikasturteko bigarren lauhilekoan, aurrez aurreko formatuan egingo den esperientzia pilotu batean. 2019/20 ikasturtean euskaraz eta gaztelaniaz ematea aurreikusten da, 37,5 orduko dedikazioarekin (1,4 hautazko kreditutan baliozkotuko dira).



[Online ikastaroa: «Nola txertatu 2030 Agenda Gradu Amaierako Lanetan»](#)

Beren Gradu Amaierako Lanetan sartzeko, 2030 Agendaren tresnak identifikatu nahi dituzten graduko 4. mailako ikasleei zuzenduta dago.

Edukiak: 1) Iraunkortasunari buruzko nozioak, 2) 2030 Agenda eta GIH, 3) Agenda inplementatzea, 4) Gradu Amaierako Lana 2030 Agendarekin lerrokatzea

3.4.2. Irakasleen prestakuntza

Hainbat jarduera antolatu dira irakasleek beren irakasgaietan eta hizkuntza-curriculumetan iraunkortasunaren inguruko gaitasunak inplementa ditzaten prestakuntzaren eta esperientziak trukatzeko espazioak sortzearen bitartez.

2018ko ekainean tailer bat antolatu zen, online, izenburu hau zeramana: [«Nola txertatu Iraunkortasunerako Hezkuntzako gaitasunak unibertsitate-ikasketetan?»](#). Tailer hori, zeina [UPV/EHUko Hezkuntzarako Laguntza Zerbitzuak \(SAE/HELAZ\)](#) sustatutako [Unibertsitateko Irakasleen Prestakuntza Programaren \(FOPU\)](#) barruan eman baitzen, maiatzaren 29tik ekainaren 29ra bitartean gauzatu zen [eGelapi](#) plataforma birtualaren bidez. Aipatutako tailerrean, ondoko hauetan zentratutako oinarri teoriko bat landu zen: Garapen Iraunkorrerako Hezkuntzarekin (GIH) lotura duten kontzeptuak, GIHrako metodologia egokienak, unibertsitatea iraunkortasunerantz eraldatzeko prozesua, eta irakaskuntza bera birbideratzea xede duten praktikak.

33 pertsonak hartu zuten parte; haietatik 22 emakumezkoak ziren, eta 13 gizonezkoak, hainbat jakintza-arlotakoak. Tailerraren amaieran, parte-hartzaileek berorri buruzko ebaluazio-inkesta bat bete zuten. 10. taulan aurkezten dira proposatutako adierazpenei buruz parte-hartzaileek erakutsitako adostasun edo desadostasun mailaren emaitzak. Tailerraren balorazioa, parte-hartzaileen aldetik, positiboa izan zen (4/6, batez beste), iruzkinetan azaldutako alderdi negatibo nabariena izan zen tailerra gaztelaniaz soilik eman zela. Inguruabar horren arrazoia da tailerra emateko ardura duen irakasleak ez dakiela euskaraz.

10. taula: «Nola txertatu Iraunkortasunerako Hezkuntzako gaitasunak unibertsitate-ikasketetan?» tailerraren ebaluazioko itemetan proposatutako adierazpenekiko adostasun/desadostasun maila (6tik).

	1..	2..	3..	4..	5..	6. - Media	
2.1. El curso se ha desarrollado según el programa previsto.	0%(0)	12%(1)	0%(0)	12%(1)	12%(1)	62%(5)	5
2.2. El curso ha dado respuesta a mis necesidades formativas.	0%(0)	0%(0)	38%(3)	12%(1)	38%(3)	12%(1)	4
2.3. Mi actitud durante el curso ha sido participativa y abierta.	0%(0)	0%(0)	12%(1)	38%(3)	38%(3)	12%(1)	5
2.4. La metodología utilizada ha facilitado el aprendizaje.	0%(0)	0%(0)	12%(1)	38%(3)	38%(3)	12%(1)	5
2.5. Las tareas realizadas han favorecido mi desarrollo profesional.	0%(0)	12%(1)	12%(1)	12%(1)	50%(4)	12%(1)	4
2.6. Los recursos utilizados han sido útiles y estimulantes.	0%(0)	0%(0)	12%(1)	62%(5)	12%(1)	12%(1)	4
2.7. La dinámica del curso ha permitido intercambiar experiencias entre los participantes.	0%(0)	0%(0)	25%(2)	12%(1)	62%(5)	0%(0)	4
2.8. Los/as formadores/as han sabido adecuar el planteamiento inicial a las necesidades que han surgido en la jornada.	14%(1)	0%(0)	14%(1)	14%(1)	43%(3)	14%(1)	4
2.9. El trabajo desarrollado por los/as formadores/as ha sido positivo.	12%(1)	0%(0)	0%(0)	12%(1)	62%(5)	12%(1)	5
2.10. Recomendaría este curso a un/a compañero/a.	14%(1)	0%(0)	14%(1)	0%(0)	57%(4)	14%(1)	4

3.4.3. Berrikuntza proiektuak iraunkortasuna hezkuntza-curriculumean txertatzeko

Ildo horretan aurrera eramandako beste ekintzetako bat, oraingoan ere [UPV/EHUko Hezkuntzarako Laguntza Zerbitzuarekin \(SAE/HELAZ\)](#) elkarlanean, graduako eta graduondoko curriculumen barruan Iraunkortasunerako Hezkuntza txertatzea aurreikusten duten berrikuntza proiektuak abian jartzea sustatzea izan zen.

2017/18ko **Hezkuntza Berrikuntzarako Proiektuen (HBP) deialdian** Iraunkortasunerako Hezkuntza ezarri zen (LP-4) lehentasunezko ildoen artean, Berrikuntza Proiektuaren ardatz modura. HBPen azkeneko bi deialdietan, hau da, 2017/18an eta 2019/20an, 17 eskari jaso eta diruz lagundu dira esandako ildo horretan. 11. taulan proiektuen izenburua, horiek bultzatu dituzten unibertsitate-ikastegiak eta beren koordinatzaileak zerrendatzen dira.

11. taula: Hezkuntza Berrikuntzarako Proiektuen zerrenda Iraunkortasunerako Hezkuntzaren esparruan: izenburua, ikastegia eta arduraduna

2017/18 eta 2019/20rako HBP		
Berrikuntzarako Proiektuaren izenburua	Ikastegia	Koordinatzailea
Enpresa baterako berrikuntzarako proiektu proposamen bat egitea, bere merkatu beharren eta funtsezko gaitasunen ondoriozko I+G+B estrategietan oinarrituta	Bilboko Ingeniaritza Eskola	Begoña Echevarria Robledo
Lankidetzeta: eskola inklusiboa eta gizarte-eragileak	Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea	M ^a Angeles Soroa Udabe
Rol-jokoetan oinarritutako ikaskuntza: klima-aldaketaren ekonomiarako aplikazio bat	Ekonomia eta Enpresa Fakultatea	Marta Escapa García
Gaming-aren erabilera ikerketan oinarrituriko ikaskuntzako ingurune batean, ekonomia ekologikoa irakasteko	Ekonomia eta Enpresa Fakultatea	David Hoyos Ramos

Unibertsitateko gizarte-konpromisoa sustatzeko irakaskuntza-jarduerak: elkartasuna eta iraunkortasuna	Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea	Saioa Telletxea Artzamendi
STEM gaitasunen eta iraunkortasunera bideratzen direnen garapena: Arabako Campuseko baratze eko-didaktikoa Lehen Hezkuntzako graduoko diziplinarteko hezkuntza-espazio gisa	Hezkuntza eta Kirol Fakultatea	Arantza Rico Martinez
Audio-gida iritsi-erraz, inklusibo eta eleaniztun bat sortzea. Ikaskuntza-zerbitzuko esperientzia bat Letren Fakultatean	Letren Fakultatea	Jose Tomas Conde Ruano
Genero-ikuspegia duen irakaskuntza Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko graduetan	Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea	Milagros Amurrio Vélez
Genero-ikuspegia txertatzea Ingeniaritza Mekanikoa Graduoko irakasgaietan, zaintza-gaitasunak garatzeko metodologia aktiboak erabiltzearen bitartez	Vitoria-Gasteizko Ingeniaritza Eskola	Amaia Calleja Ochoa
Genero-ikuspegia irakaskuntzan: Genero-berdintasunaren arloko gaitasunen ikaskuntzarako tresnak eta metodologia aktiboak planifikatu, garatu eta ebaluatzeko prozesua	Ekonomia eta Enpresa Fakultatea	Eva María Velasco Balmaseda
Garapen iraunkorreko helburuak (GIH) Biologiako graduan	Zientzia eta Teknologia Fakultatea	Ines Arana Basabe
Gardentasuna eta genero-ikuspegia idazketa informatiboaren irakaskuntzan	Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea	Leire Ituregui Mardaras
Ikaskuntza/zerbitzua unibertsitatearen eta enpresaren arteko lankidetzaren eredu gisa Gradu Amaierako Lanetan	Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea	Maria Nieves Aja Hernando
Giza Nutrizioa eta Dietetika titulazioan «iraunkortasuna eta gizarte-erantzukizuna» gaitasun orokorra garatuz joatea, metodologia aktiboak eta lankidetzaren erabiltzearen bidez.	Farmazia Fakultatea	Arrate Lasa Elguezia
Iraunkortasunerantz hezten Ingeniaritzako ikasketetan.	Bilboko Ingeniaritza Eskola	Teresa Guraya Diez
Gaitasun espezifikoak, zeharkakoak, metodologia aktiboak eta gradu amaierako lanak garatzea Farmaziako Graduan	Farmazia Fakultatea	Yolanda Fernandez de Aranguiz Guridi
Ez duzu ihesbiderik! A plana soilik dago, «IRAUNGARRITASUNA», ez baitago B* planetarik.	Bilboko Ingeniaritza Eskola	Estibaliz Saez de Cámara Oleaga

3.4.4. Administrazio eta zerbitzuetako langileentzako prestakuntza

2018an, non UPV/EHUK garapen iraunkorrerako 2030 Agendari egin diezaiokeen ekarpenari buruzko hausnarketa-prozesua eraman baitzen aurrera, interesgarria

iritzi izan zitzaien UPV/EHUko Administrazio eta Zerbitzuetako (AZP) langileei arlo horretako prestakuntza eskaintzeari. 2018ko azaroaren 5etik 15era artean, [«Garapen Iraunkorreko 2030 Agendarako sarrera»](#) izenburuko online ikastaroa eskaini zen. Garapen Iraunkorrerako 2030 Agenda zer den –bai eta Nazio Batuen Batzar Nagusiak onartutako Garapen Iraunkorreko Helburuak (GJH) ere– ulertu nahi zuten administrazio eta zerbitzuetako (AZP) langileei zuzenduta zegoen; baita hainbat eremutatik garapen iraunkorrari nola lagundu hausnartzeko ere. 17 pertsonak hartu zuten parte (16 emazteki eta gizonezko 1).

3.4.5. Iraunkortasunerako Hezkuntzako sareetan parte-hartzea

Iraunkortasuna integratzea xede duen curriculuma birbideratzeko ezinbestekoa da Iraunkortasunerako Hezkuntzaren (IH) berrikuntza-sareetan parte hartzea. Hortik sortzen den trukeak ikuspegi aberasgarriagoa ematen du iraunkortasuna unibertsitateko curriculumean txertatzeko alderdi giltzarriari buruz.

UPV/EHUK ondoko IH sareetan parte hartzen du: Copernicus Alliance, 9 Unibertsitateko taldea eta CRUE- Iraunkortasuna.

- Copernicus Alliance.

UPV/EHU Europako goi hezkuntzako sare honetako kide aktiboa da. 1993an sortu zen garapen iraunkorra sustatzeko xedearekin; zehatzago esanda, Goi-mailako Hezkuntzako Europako Espazioan iraunkortasuna sustatzeko eta ikertzeko xedearekin.



- CRUE Iraunkortasuna

Espainiako Unibertsitateetako Errektoreen Konferentziako (CRUE) sektore-batzordea 2009n sortu zen, Espainiako zenbait unibertsitatearen ekimenez. Xedea zen Espainiako unibertsitateek ingurumen-kudeaketaren arloan zuten esperientzia, ingurumena unibertsitate-curriculumean txertatzeko prozesuan egindako aurrerapenak eta arriskuen prebentzioan egindako lanak partekatzea eta, aldi berean, esparru horietako jardunbide egokiak sustatzea. Sektore-batzorde horrek bederatzi lantalde

ditu: 1) unibertsitateko iraunkortasunaren ebaluazioa, 2) unibertsitate-eraikinetako ingurumen-hobekuntzak, 3) parte-hartzea eta boluntarioritza, 4) laneko arriskuen prebentzioa, 5) iraunkortasuna curriculumean, 6) unibertsitateak eta mugikortasun iraungarria, 7) unibertsitate osasungarriak, 8) unibertsitate-hirigintza eta iraunkortasuna eta 9) genero-politikak.



- Unibertsitateen G-9 taldea**
 Talde hau 1997ko maiatzaren 16an sinatutako hitzarmenaren indarrez eratu zen. G-9 taldearen barruan dauden 9 unibertsitateek –estatutuen arabera, zein bere autonomia-erkidegoko unibertsitate publiko bakarrak dira– gizarte-xede berbera dute: taldeko unibertsitate-erakundeen arteko lankidetzaren sustatzea, hala irakaskuntzarekin eta ikerketarekin zerikusia duten gaiei dagokienez, nola kudeaketa eta zerbitzuei dagokien guztian. UPV/EHUko

Iraunkortasuneko Zuzendaritzak aktiboki parte hartzen du garapenerako unibertsitate-lankidetzako sektoreko batzordean.



Gainera, duela gutxi, 2018ko abenduan, zehatzago esanda, UPV/EHUk bat egin du Garapen Iraunkorrerako Espainiako Sarearekin (REDS), zeina, hain zuzen ere, Sustainable Development Solutions Network (SDSN) sarearen Espainiako adarra baita. REDS sarearen helburu nagusia unibertsitateak, ikerketa-zentroak, enpresak eta gizarte zibila aktibatzea da, garapen iraungarriari buruzko arazo praktikoak konpontzeko. REDSen jarduera Espainian lehentasunezkoak diren lau arlotan zentratzen da: energia, ura, biodibertsitatea eta generoa.

- REDS.**
 REDS sarearen eginkizuna da Espainiako gizartea, erakunde publikoak eta sektore pribatua mugiaraztea eta sentsibilizatzea GIHak modu zorrotzagoan eta arduratsagoan ezagutu ditzaten, bai eta politika publikoetan, enpresan eta, oro har, gizartearen portaeran haiek

txertatzeko erraztasunak ematea ere.



3.5. Ikasleen parte-hartzea sustatzea elkartasunezko eta garapenerako lankidetzako ekimenetan

UPV/EHUk bere gain hartzen du ikasleak modu integralean prestatzeko zeregina eta gure inguruko eta Hegoaldeko herrialdeetako beste eragile batzuekin lankidetzan aritzekoa. Osoko heziketa horri esker, etorkizuneko belaunaldiek gizartei eragiten dieten arazoengatik inguruko eztabaidetan parte hartu ahaliko dute, berdintasunez eta iraunkortasunez ez ezik, giza eskubideekiko errespetu handiagoa lortzeko helburuarekin. Horretarako, 2018. urtean, gizarte demokratiko eta irekien ezaugarri diren balioak (bakea, ekitatea, inklusioa eta iraunkortasuna) hausnartzea eta praktikan jartzea ahalbidetuko duten jarduerak eta espazioak sustatzen jarraitu da. Ondoren deskribatzen dira:

3.5.1. Garapenerako Lankidetzaren inguruko Lan Praktikak eta Gradu Amaierako Lanak egiteko Programa

2003ko maiatzaren 13an UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak onartutako Garapenerako Lankidetzako Proiektuetan Lan Praktikak eta Gradu Amaierako (GRAL) lanak egiteko Programak, bide ematen die ikasleei beren nahitaezko lan-praktikak eta GRALak hainbat lankidetzaren erakundek garapen bidean dauden herrialdeetan dituzten proiektuetan egiteko, esperientzia hori beren heziketa akademiko-praktikoan txertatuz.

Programa hori 2003/2004 ikasturtean zehar abiarazteko zioa Unibertsitatearen xedeetako bat da: munduan dauden desberdintasunen eta desoreken kontzientzia diren eta gizartearen aurrerapena oztopatzen duten arazoengatik inguruko eztabaidetan parte hartzeko gai diren profesionalak hezteak.

Programa hiru printzipio hauetan oinarritzen da:

- Garapenerako proiektuetan egindako praktikek prestakuntza aldetik duten garrantzia aitortzea.
- Garapenerako lankidetzarekiko motibazio handia duten ikasleen eskaria asetzea.
- UPV/EHUren eta garapenerako lankidetzako erakundeen arteko lankidetzaren sustatzea, ikasleen praktiken egiazko exekuzioa zein sentsibilizazio jarduerak unibertsitate-erkidegoan izango duten eragina ziurtatzeko.

Praktiken eta GrALen programak laguntza ekonomikoak ere eskaintzen ditu, parte hartuko duen ikaslearen bidaiari eta aseguruari loturiko gastuen ordainketa arintzeko. 750 €ko laguntza jasotzen du ikasle bakoitzak. Aipatutako funts ekonomiko hori honako hauetan oinarritzen da: [Euskal Toki Erakundearen Lankidetzarako Elkarteak](#) (Euskal Fondoak) egindako ekarpenetan eta UPV/EHUko ikasleek beren matrikulen bidez egiten duten ekarpenetan, hau da, [Ikasleek jarritako %0,7ko Funtsean](#). Horrela, bi modalitatetan sailkatu diren ondoko jarduerak hauri ematen zaie sostengua:

- 1. modalitatea: Garapenerako lankidetzarako unibertsitate-praktikak garapen bidean dauden herrialdeetan, ikasleak bere prestakuntza akademikoan lorturiko osagai teoriko eta praktikoak aplikatu dituzten, gizarte-errealitatea ebaluatu eta gizarte aldatzeko estrategiak planifikatzeko bere gaitasunak indar dituzten eta, aldi berean, gizarte-arazoaren prebentzioan, arintzean edo konpontzean lagun dezaten bere prestakuntzako eginkizun eta funtzio profesionaletan oinarrituta.
- 2. modalitatea: Gradu amaierako lanak garapeneraren eta/edo lankidetzaren arloan. Honela, UPV/EHUko ikasleak graduan zehar lorturiko ezagutzak GGKEk eta lankidetzako erakundeek planteatu dituzten «arazo teknikoak» konpontzeko aplikatuko dituzte, bere GrAL egitearekin batera.

Ondoko hauek dira programan inplikaturiko eragileak:


- GGKEak edo lankidetzako erakundeak: unibertsitate-ikasleak hartuko dituzten garapenerako lankidetzako proiektuak proposatzen dituzte.
- Unibertsitate-ikastegiak: GGKEek tokian bertan garatuko dituzten garapenerako lankidetzako proiektuen baitan garatuko diren nahitaezko praktikak edo GrALak sartuko dituzte beren irakaskuntza-programan.
- Ikasleak: beren prestakuntza profesionalaren zati bat garapenerako lankidetzako proiektu batean parte hartzea eskatuko duten lan-praktiken edo GrALaren bitartez jasoko dute.
- Eragile babesleak, Euskal Fondoa, esate baterako. Osatzen duten erakundeek ekarpenen bitartez, finantza-bitartekoak eskaintzen dituzte ikaslearen bidaiaren kostuaren zati bat ordaindu ahal izateko.
- UPV/EHUko Garapenerako Lankidetzako Bulegoa: bitartekari lanak egiten dituzten alde guztien artean eta kudeaketari, prestakuntzari eta ebaluazioari dagozkien jarduerak gauzatzen dituzte, Programari jarraikitasuna eman ahal izateko.

Praktiken eta GrALen Programa honen eragin positiboaren inguruko adierazleak ditugu, programan parte hartu duten ikaslearen sentsibilizazioari eta elkartasuneko portaerak sustatzeari dagokienez. Azpimarratzekoa da, halaber, UPV/EHUko ikasleek gero eta interes handiagoa agertzen dutela mota honetako praktiken inguruan. Abian jarri zirenetik 15. ediziora arte (2017/18ko ikasturte akademikoa) UPV/EHUko 16 ikastegitako 1.000 ikasle baino gehiagok hartu dute parte programan. Aipatutako ikasle horiek Latinoamerikako edo Afrikako 23 herrialde baino gehiagotara bidaiatu dute beren praktikak egitera, hogeita hamarren bat lankidetzako erakunderen artean finantzatutako garapenerako proiektuen markoan.

Zehatz-mehatz esanda, hamabosgarren edizioan (2017/18 ikasturtea), UPV/EHUko 8 ikastegitako 80 ikasle hartu dute parte programan; horietatik 67 izan dira emakumezkoak eta 13 gizonezkoak. Ikasle horiek Latinoamerikako eta Afrikako 13 herrialdeetan egon dira, beren praktikak edo GrALak egiten, garapenerako

lankidetzeta-proiektuetan. 9. irudian agertzen dira parte-hartzaileak sexuaren, destinoko herrialdearen eta ikastegiaren arabera bereizita.

Aurreko edizioetan bezala, nabarmentzekoa da ikasle emakumezkoen parte-hartzea; izan ere, parte hartu duten ikasle guztien hiru laurdenak baino gehiago izan baitira (% 83,75). Gainera, azpimarratu behar da programan parte hartu duten ikasleen % 31,25ek Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatean ikasten dutela, eta % 18,75ek Psikologia Fakultatean, biak Gipuzkoako Campusean. Destinoko herrialdeei dagokienean, berriz, nabarmentzekoa da Latinoamerikako herrialdeak izan direla gehien eskatu direnak. Gainera, esan behar da aurtengo edizioan asko izan direla Saharara bidaiatu duten ikasleak, Medikuntza eta Erizaintza Fakultateak eta Gasteizko Saharar Elkarteak sinatutako hitzarmenari esker.



9. irudia: 2017/18 ikasturtean garapenerako lankidetzako proiektuetan lan-praktikak eta GRALak egiteko Programan parte hartu zuten ikasleak, sexuaren (goian ezkerretara), destinoko herrialdearen (goian eskuinetara) eta ikastegiaren arabera bereizita (behean eskuinetara).

3.5.2. Gaztenpatia programa

Euskal Toki Erakundeen Lankidetzarako Elkarte (Euskal Fondoak) elkartearekin 10 urte baino gehiagoko lankidetzaren etengabearen ondorioz, eta Unibertsitateak munduan dauden desberdintasunez jabetzen diren profesionalak prestatzeko duen helburuari erantzuteko, 2015/2016 ikasturtean [Gaztenpatia](#) programa jarri zen abian.

gazt**e**npatia

Gaztenpatia Garapenerako Lankidetzako Lan-praktiken eta Gradu Amaierako Lanen Programaren barruan dago, baina baditu zenbait ezaugarri bereizgarri. Zehazki, programa jarraian adierazten diren printzipio hauetan oinarritzen da:


- Prestakuntza. Garapenerako proiektuetan egindako praktikan prestakuntza osagai garrantzitsua dela aitortzen du.
- Enpatia. Garapenerako lankidetzarekiko motibazio handia eskatzen du ikasleen aldetik.
- Gazteak. Hainbat herrialdeetako gazteak inplikatzeko dira gizarte-erakunde bakoitzean egikaritzen diren garapenerako lankidetzaren proiektuekin lotura duten eginbide erkideetan.
- Komunikazioa. Proiektu honetan komunikazioa eta ikusgarritasuna funtsezko osagaiak dira. Horregatik, ikus-entzunezkoen mundua funtsezkoa da Gaztenpatia programan.

2018. urtean 3. edizioa garatu da (2017/18 ikasturte akademikoa) eta 4. edizioa antolatu da (2018/19 ikasturte akademikoa). Proiektu honen 3. edizioari esker, UPV/EHUko 6 ikastegitako 26 ikasle (20 emazteki eta 6 gizona) beren praktikak edo Gradu Amaierako Lanak egin dituzte garapenerako lankidetzaren proiektuetan [Euskal Fondoak](#) proiektuak abian dituen hiru herrialdeetan: Guatemala, El Salvador eta Nikaragua. 10. irudian parte-hartzaile kopurua adierazten da, sexuaren eta destinoko herrialdearen arabera bereizita; 11. irudian, berriz, matrikulatuta dauden UPV/EHUko ikastegiaren arabera banakatuta erakusten dira ikasle parte-hartzaileak.



10. irudia: Gaztenpatia Programaren 3. edizioan (2017/18 ikasturtea) parte hartu duten ikasleak, sexuaren (ezkerretara) eta destinoko herrialdearen (eskuinetan) arabera bereizita.

Nabarmendu behar da, aurreko edizioetan bezala eta lan-praktiken eta GRALen programan gertatu den bezalaxe, ikasle emakumezkoen parte-hartzea (% 76,9) ikasle gizonezkoena baino (% 23,1) nabarmen handiagoa dela. Destinoko herrialdeari dagokionez, kontuan hartu behar da Nikaraguak 2017/18 ikasturte honetan izan duen egoera soziopolitiko kezkarriak destino horretarako programatutako ia bidaia guztiak bertan behera uztera behartu zuela, eta, ondorioz, gehienak El Salvadorrera eta Guatemalara joan zirela. Gaur egun, hasita daude jada 2018/19 ikasturte akademikoan Gaztenpatian parte hartuko duten ikasleei destino berri bat eskaintzeko izapideak.



11. irudia: Gaztenpatia Programaren 3. edizioan (2017/18 ikasturtea) parte hartu duten ikasleak, unibertsitate-ikastegiaren arabera bereizita

Ikus daitekeenez, Gaztenpatian parte hartu duten pertsonen % 38,5 Arkitekturako Goi Eskola Teknikoan matrikulatuta daude, % 23 Psikologia Fakultatean eta, azkenik, % 19,3 Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatean. Programan beste ikastegi hauek ere hartu dute parte, nahiz eta pertsona gutxiagorekin izan: Farmazia Fakultatea (% 7,7), Ekonomia eta Enpresa Fakultatea (% 7,7) eta Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea (% 3,8).

Gainera, 2017/18 ikasturtean, hiru irakasle/tutore (emakumezko) ere joan dira El Salvadorrera eta Guatemalara, Arkitekturako Goi Eskola Teknikoaren programatik, Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatetik eta Psikologia Fakultatetik. Bidaia horien xede nagusia izan da UPV/EHUko ikasleen jarduerak gainbegiratzea eta, bestalde, harremanak estutzea herrialde horietako ikaskuntza-erkidegoekin. Irakasle horiek datu-bilketa sakona egin dute, zeina programaren 3. edizioaren ebaluazio-fasean eta 2018/19 ikasturterako 4. edizioaren proposamenean aztertuko baita.



12. irudia: Gaztenpatia programan parte hartu duten ikasleen argazkiak.

Halaber, 2018ko azaroaren 12an, Kulturarteko III. Gaztenpatia topaketa antolatu zen. Gipuzkoako Campusean egin zen topaketa horretan, programarekin lankidetzan aritzen diren erakunde eta entitateetako ordezkariak hartu zuten parte: Guatemalako INCIDE Fundazioa, El Salvadorreko Kolektibo Feminista, Euskal Fondoa eta UPV/EHU. Topaketa UPV/EHUko unibertsitate-erkidegoari zuzendu zitzaion; bereziki, garapenerako lankidetzako proiektuak prestatzen dituzten eta lankidetzako praktiketan edo GRALean dauden ikasleen tutoretza egiten duten irakasleei eta lankidetzako Practicum edo GRALen modalitate honetan interesa duten ikasleei.

[Webgune](#) bana sortu da Gaztenpatiako proiektu bakoitzerako, proiektu horiek UPV/EHUko unibertsitate-erkidegoan eta beste eragile batzuen artean zabaltzeko, eta Gaztenpatian parte hartzen duten ikasleen eta irakasleen esperientziak eta emaitzak ezagutzera emateko.



13. irudia: Gaztenpatia Programako proiektuen webgunea

3.5.3. Ikasleek erakundeetan boluntariotza-jarduerak egiteko gauzatu beharreko kudeaketak

UPV/EHUK, bere inguruarekiko konpromisoa duen eragile gisa, inklusioa eta gizarte-konpromisoa sustatzen ditu, unibertsitate-erkidegoan elkartasuna eta gizarte-partaidetza bezalako balioak bultzatuz. Konpromiso hori irabazi-asmorik gabeko erakundeekin boluntariotzan eta haiekiko lankidetzan gauzatzen da, eta gure errealitatean modu positiboan eragiteaz gainera, ikasleen prestakuntza integrala eta UPV/EHUko langileen garapen pertsonala eta profesionala mesedetzen dira.

Horretarako, Iraunkortasuneko Zuzendaritzak beharrezko kudeaketak egiten ditu EHUko ikasleei eta langileei erakundeetan boluntariotza-jarduerak egitea errazteko. Izapide horien barruan sartzen dira honako hauek:

- Interesa agertu duten ikasleak, gizarte-erakundeak eta boluntariotzako GGKEk harremanetan jartzea. EAEko hiru lurraldeetako boluntariotzako agentzien bitartez egiten da, batik bat: [Batekin](#), [Bolunta](#) eta [Gizalde](#).
- Boluntariotzako zeregina gauzatzen hasi aurretik, ikasleek eta langileek jasoko duten alde zuzeneko prestakuntza diseinatzea eta antolatzea boluntariotzako agentzia horiekin batera.
- Etengabeko harremana mantentzea gizarte-erakundeekin eta boluntariotzako GGKEekin –non boluntariotza-jarduerak egiten diren– bi aldeek bilatzen dituzten helburuak betetzen direla bermatzeko.
- Egindako jarduera baloratzea eta egiaztagiriak jaulkitzea Graduak irakaskuntzetan baliozkotzeko hautazko kredituak aitortzeko. 2012an onartutako Graduak irakaskuntzetan kredituak aitortzeari eta transferitzeari buruzko Arautegi orokorreko 11. artikulua xedatzen du «UPV/EHU matrikulatutako ikasleek elkartasuneko jardueretan aritzeagatik kredituak aitortzea eskatu ahal izango dutela, Unibertsitatean ikasten duten bitartean gauzatutako ekintzak izan beharko dutela, eta gehienez ere ikasketak 6 kreditu eskatu ahal direla, eta 3 kreditu emango direla gehienez ikasturteko eta kreditu bat emango dela 30 orduko».

Lehen aldiz abian jarri zenetik hona, elkartasun eta lankidetzako jardueretan aritzeagatik hautazko kredituak aitortzen dituen programa honen markoan, UPV/EHUK berrogeita bost hitzarmen baino gehiago sinatu ditu EAEko hainbat erakunderekin eta gizarte-elkarterekin. Halaber, akordioak izenpetu ditu EAEko hiru lurralde historikoetako boluntariotzako agentziekin.

- [Batekin](#). Boluntariotzarako eta gizarte-partaidetzarako Arabako agentzia



- **Bolunta.** Boluntariotzarako eta gizarte-partaidetzarako Bizkaiko agentzia




- **Gizalde.** Boluntariotzarako Gipuzkoako agentzia



2017/18 ikasturte akademikoan, 170 ikaslek eskatu dute guztira (118 emakumezko, 49 gizonezko eta 3 pertsona ez-bitar) elkartasuneko eta lankidetzako jardueretan aritzeagatik hautazko kredituak aitortzeko. Guztira 439,5 hautazko kreditu aitortu dira, hau da, UPV/EHUko graduako ikasleek 13.000 ordu baino gehiago egin dituzte boluntariotzako lanetan.

Elkartasuneko eta lankidetzako jarduerak egin dituzten ikasle gehienak Osasun Zientzien eta Gizarte Zientzien arloetakoak dira. 14. irudian hautazko kredituak aitortzea eskatu duten ikasleen banaketa adierazten da, unibertsitate-ikastegien arabera bereizita. Nabarmenezkoak dira Medikuntza eta Erizaintza Fakultateko, Psikologia Fakultateko eta Zientzia eta Teknologia Fakultateko ikasle boluntarioen kopurua.



14. irudia: Elkartasun eta lankidetzako jarduerak egiteagatik hautazko kredituak eskatu dituzten graduako ikasleen banaketa, ikastegien arabera

3.5.4. Boluntariotza auto-kudeatutako ekimenak bultzatzea eta sostengatzea

UPV/EHUk, bestalde, hautazko kredituen bidez aitortzen ditu UPV/EHUko ikasleek zuzenean sustatutako elkartasun- eta lankidetzajarduerak. Jarduera horiei boluntariotza auto-kudeatutako ekimenak deitzen zaie, eta ['Gu geu bolondres' programaren](#) barruan sartzen dira.




Horretarako, jarduerak zenbait ezaugarri bete behar dituzte: publikoarentzat irekiak izatea eta UPV/EHUko gradu batean matrikulatutako 3 ikasleek sustatzea, gutxienez; behar sozial bati erantzuna emateko planifikatuak egotea (behar globalak edo kolektibo jakin batenak) eta ikasle bakoitzak 30 orduko dedikazioa eskaintzea gutxienez, besteak beste. Horrelako jarduera bat abian jartzeko egin beharreko izapideak [webgunean](#) daude jasota.

2017/18 ikasturtean, boluntariotza auto-kudeatutako lau ekimen hauek garatu dira: 1) Errefuxiatuei zuzendutako online-ko hizkuntza-heziketarako laguntza, 2) Lehen Sorospenei buruzko jardunaldiak, 3) Antigua-Luberri Institutuko (Donostia) ikasleei sostengu akademikoa ematea eta 4) Bisita gidatuak Gipuzkoako SOS Arrazakeriaren «Pentsa ezazue hori benetan gertatu dela» izenburuko erakusketara».

[Errefuxiatuei zuzendutako online-ko hizkuntza-heziketan laguntzeko ekimena](#)

Prestakuntza hori Europako Batzordearen [Online Linguistic Support for refugees](#) (OLS, online-ko hizkuntza-sostengua) ekimenaren barruan kokatzen da. Helburua da Europar Batasuneko estatu kideei laguntzea errefuxiatuen krisia dela-eta etorritako migratzaileak hezkuntza- eta prestakuntza-sistemetan integratzeko ahaleginetan, bai eta haien gaitasun eta trebetasunen garapena bermatzea ere.

Ekimen hori [Errefuxiatuei Laguntzeko Espainiako Batzordearekin](#) (CEAR) elkarlanean jarri da abian, eta Bizkaiko esperientziaren ikasgeletan garatu da.



4 boluntariok sustatu dute ekimena (2 emazteki eta 2 gizonezko) eta gaztelaniaz ikasteko online-ko prestakuntza garatzen lagundu dute. Ekimenean nazioarteko babesaren 15 onuradunek hartu dute parte (5 emazteki eta 10 gizonezko). Nabarmentzekoa da ikastaroan parte hartu duten pertsonen erakutsi duten motibazio handia; oso esperientzia aberasgarria izan da bai ikastaroa jaso dutenentzat eta bai boluntarioentzat.

[Berdinen arteko lehen sorospentako prestakuntza ekimena](#)

Aurreko ikasturteetan izandako ekimenari jarraipena emanez, Medikuntza eta Erizaintza Fakultateko 4 ikaslek (emakumezko 1 eta 3 gizonezko) –Medikuntzako Ikasleen Batzarreko (AEM/MIB) kideak– lehen sorospentako prestakuntza-jardunaldi batzuk diseinatu eta garatu dituzte, honako gai hauekin: bihotz-biriketako bizkortzea (BBB); haurren ustekabeko intoxikazioak; zauriak, erredurak, ubelduak; paziente kritikoari arreta ematea, eztarriko tratatzeak, konbultsioak eta sinkopeak.

2017/18 ikasturtean, lehen sorospentako bi jardunaldi egin dira Bilboko Hezkuntza Fakultatean, zehazki, 2017ko irailaren 21ean eta 2018ko otsailaren 15ean, eta hirugarren bat 2018/19 ikasturteko lehen hiruhilekoan, 2018ko urriaren 30ean.



2017-2018 ikasturteko bi jardunaldietan 83 ikaslek parte hartu dute (75 emazteki eta 8 gizon), Haur Hezkuntzako graduak, Lehen Hezkuntza eta Gizarte Hezkuntzako graduak eta Gizarte Hezkuntzako graduak.

Jardunaldien balorazioari dagokionez, azpimarratu behar da, parte-hartzaile gehienek adierazi dutenaren arabera, egoera kritiko batean nola hala jarduteko gai ikusten dutela beren burua, eta adierazi dute ikastaroan landu diren gaiak oso baliagarriak direla etorkizunean izango duten lanerako.

[Antigua-Luberri Institutuko ikasleei sostengu akademikoa emateko ekimena \(Ikas2D\)](#)

2017-18 ikasturtean, UPV/EHUko hiru ikasle boluntariok (emakumezkoak) laguntza akademikoa eman diete Antigua-Luberri Institutuko (Donostia) DBHko lehen zikloko ikasleei. Astean bitan joan dira laguntza akademikoa eta emozionala eskaintzera, loturak sortzeko eta ikasle horientzat erreferente positiboa izateko xedearekin.

Esperientziak, alde batetik, lan-mundura hurbiltzeko aukera eskaini die UPV/EHUko ikasleei, testuinguru erreal batean lan egiteari esker; eta, bestetik, norberaren konfiantza lantzeko modua, erantzukizunak hartzen ikasi behar izan baitute.



[Bisita gidatuen ekimena SOS Arrazakeriaren «Pentsa ezazue hori benetan gertatu dela» izenburuko erakusketara](#)

UPV/EHUko zenbait irakaslek, SOS Arrazakeria erakundeko kide batzuek eta Zuzenbide, Kriminologia eta Psikologiako graduatuko hainbat ikaslek osatutako

talde batek bisita gidatuak eskaini ditu Gipuzkoako SOS Arrazakeriak antolatutako «Pentsa ezazue hori benetan gertatu dela» erakusketara.

Ekimen honen helburua izan da Europaren iraganetik zer ikasia ateratzea, arrazismoak eta lagun hurkoari gizatasuna kentzeak sortutako basakeriaren gainean gogoeta egiteko eta dibertsitateak egun planteatzen dituen erronkei buruzko eztabaida bultzatzeko.



Proiektu horren markoan hainbat motatako jarduerak antolatu ziren. Alde batetik, parte hartzen zuten irakasleei eta ikasleei prestakuntza ematea Holokaustoaren tragediaz. Prestakuntza hori «Holokaustoaren irakaspenak: iraganetik ikastea giza eskubideak babesteko» izeneko tailerrean eman zen. Tailerrean Psikologia, Zuzenbide eta Kriminologia graduetakoko 39 ikaslek eman zuten izena (31 emazteki eta 8 gizonezko) eta berorren dinamizazioan UPV/EHUko 5 irakasle (emakumezkoak) inplikatu ziren. Bestalde, «Pentsa ezazue hori benetan gertatu dela» panel-erakusketara bisita gidatuak antolatu ziren UPV/EHUko Zuzenbide Fakultatean, 2017ko urriaren 18tik abenduaren 20ra bitartean. Bisita horietan Psikologia eta Zuzenbide Fakultateetako 797 ikaslek hartu zuten parte. Gainera, hitzartutako 24 bisita egin ziren, 2017ko azaroaren 2tik 24ra bitartean. Bisita gidatuak aipatutako tailerrean prestatutako 15 ikasleren eskutik egin ziren, SOS Arrazakeria erakundeko pertsona bat lagun zutela.

Ekimen honen balorazioari dagokionez, aipatzekoa da unibertsitate-erkidegoaren parte-hartze handia. Lorpen handia da hasierako prestakuntzarako ikasle kopuru hain handia motibatzea, bai eta erakusketako gidari gisa parte hartzeko gogoari eta konpromisoari eutsi izana ere.

Aurrez adierazitakoaz gainera, 2018an kanpaina bat egin da, sustapen-bideoen bitartez, auto-kudeatutako boluntarioritza-programa -'gu geu bolondres!'- bultzatzeko xedearekin. Bideo horiek eskuragarri daude Programaren [webgunean](#).

3.5.5. Boluntarioritza sustatzeko beste ekimen batzuk

Urtean zehar, ondoko esperientzia-mahaia eta boluntarioen erakusleioa antolatu dira, eta honako laguntza hauetarako deiak egin dira:

- **Boluntarioritzako erakusleioak**
 - **Bizkaiko Campusean**, Boluntarekin lankidetzan, 2018ko apirilaren 10ean, Bizkaian lan egiten duten boluntarioritzako 10 erakundek beren jarduerak erakutsi zizkioten unibertsitate-erkidegoari Bilboko Hezkuntza Fakultateko hallean
 - **Gipuzkoako Campusean**, Gizalderekin lankidetzan, Gipuzkoan lan egiten duten boluntarioritzako 12 erakundek beren jarduerak erakutsi zizkioten


unibertsitate-erkidegoari Ignacio Maria Barriola eraikinaren (Ikasgelategia) beheko standetan, 2018ko azaroaren 21ean.

- **Arabako Campusean**, UPV/EHUK berak erakutsi zizkien bere programak eta jarduerak Araban lan egiten duten erakundeei, stand batekin parte hartu baitzuen Iradier Arenan Boluntariotzaren Nazioarteko Egunean, 2018ko abenduaren 5ean.

- **Esperientzien mahai-Elkartasunezko Uda Boluntarekin.** Boluntariotza-kanpainei buruzko hitzaldi informatiboak udako hiletan. Mahai-inguru hori 2018ko apirilaren 11n egin zen Bizkaiko Campuseko Bibliotekaren eraikinean. Eskaini ziren destinoetako batzuk hauek izan ziren: Elkartasun-turismoa Nepalen, Indian, Txinan, Marokon, Amazonian; brigadak Kuban, Nikaraguan, Palestinan eta Venezuelan; auzolandegiak; aisialdiko hezkuntza: kanpamentuak eta koloniak eta Saharako eta Txernobyngo haurrentzako familia-harrera.

Mahai-ingurua: Elkartasun Uda	Mesa de experiencias: Verano Solidario
Zatoz eta prestatu zure uda Eguna: Apirilaren 11a Ordua: 13:30etatik 14:30etara Lekua: Seminario Gela Liburtegia (B. Solaurren)	Ven y planifica tu verano Día: 11 de abril Horario de 13:30 a 14:30 h Lugar: en el aula Seminario edificio de la Biblioteca 6ª planta
 <p> UDA SOLIDARIO VERANO SOLIDARIO www.bategin.org </p>	

- **RIVA 2018 Ingurumen Boluntariotzako Jardunaldietan parte hartzeko laguntzen deialdia.** UPV/EHUK, CRUEren Parte-hartze eta Boluntariotza lantaldeko kide denez, unibertsitate-erkidegora zuzendutako lau laguntza emateko deialdia egin zuen, Guadarrama Mendilerroa Parke Nazionalaren inguruan 2018ko maiatzaren 25, 26 eta 27an izandako unibertsitate-boluntarioen esperientziak partekatzeko. Farmazia Fakultateko 4 pertsonaren (3 emazteki eta gizonezko 1) ostatu-gastuak finantzatu ziren.



3.6. Errefuxiatuei laguntzeari dagokionez UPV/EHUK hartu dituen konpromisoak garatzea

Unibertsitateak, lankidetzako eragilea den heinean, beharrezko erremintak ditu larrialdi egoeretan bere laguntza eskaini ahal izateko, kaltetutako inguruen berreraikuntzan parte hartzeko eta beren herrialdea uztera behartuta egon diren pertsoneri laguntza emateko. Zentzu horretan, unibertsitate-erkidegoa osatzen duten norbanakoen inplikazioaz gainera, unibertsitateak, erakunde gisa, bere giza baliabideak, bitartekoak eta ezagutzak kaltetutako pertsonen esku jarri behar ditu haien bizi baldintzak hobetu ahal izateko.

Ondorioz, UPV/EHUK, 2015eko urriaren 1ean Gobernu Kontseiluak aho batez onartutako akordioaren bitartez, asiloa eta babesa eskatzen duten pertsonen eskubideak baldintzarik gabe defendatzeko konpromisoa hartu zuen. Akordio horretan, EAEn errefuxiatutako pertsonak artatzeko ekintza ezberdinak gauzatzeko konpromisoa hartu zuen, lau lan-ildotan oinarritua:

- 1) Asiloa eskatu duten ikasleentzako oinarrizko prestazio-asistentzia
- 2) Egoera akademikoa erregularizatzeko beharrianak estaltzea
- 3) Sentsibilizazioa eta eztabaida sustatzea
- 4) Laguntza ekonomikoa eta materiala.

Urte akademikoan zehar, jarraian deskribatzen diren ekintza hauek garatu dira, aurretik aipatutako gai-esparruen baitan.


Egoera akademikoa erregularizatzeko prozesuan eta unibertsitatera sartzeko laguntza ematea

Errefuxiatuak lehenengo eta bigarren ekinaldian artatzeko ardura duten entitate eta erakundeek bidali dizkiguten asiloa eta babesa eskatu duten pertsonen UPV/EHUra sartzeko eskariak izapidetu ditugu. Ondokoak dira aipatu erakundeak:

- [Errefuxiatuei Laguntzeko Espainiako Batzordea](#) (CEAR)
- [Espainiako Gurutze Gorria](#) (CRE)
- [Asociación Comisión Católica Española de Migración](#) (ACCEM)

UPV/EHUko Garapenerako Lankidetzeta Bulegoak unibertsitatean sartzeko baldintzei edo espedienteak lekuz aldatzeari buruzko laguntza eta informazioa eskaintzen die nazioarteko babesa eskatzeko egoeran dauden etorkizuneko unibertsitateko ikasleei, ikasketak atzerrian hasi dituzten pertsonentzako Gradurako sarbidearen bidez UPV/EHUra sartzeko aukera izan dezaten. Sarbide horretaz baliatzeko, etorkizuneko ikasleak lehen mailako 30 ECTS kreditu gaindituta izan beharko ditu, gutxienez, jatorrizko bere unibertsitatean. Eta UPV/EHUra egitea eskatzen duen Graduako irakasgaiekin baliokidetzeko gai izan behar dute kreditu horiek.

Zehatzago esanda, 2017/18 ikasturte akademikoan arreta pertsonalizatua eskaini zaie nazioarteko babesaren onuradun ziren 13 ikasleri (2 emazteki eta 11 gizonezko). 15. taulan pertsona horien ikastegia eta jatorrizko herrialdea adierazten dira. Azpimarratzekoa da ia erdiek Ekonomia eta Enpresa Fakultatean ikasten dutela.



15. irudia: 2017/18 ikasturtean asiloa eskatu duten –edo babestuta dauden– UPV/EHUko ikasleen jatorrizko herrialdea (goian) eta ikastegia (behean)

Ikasle horien 2017/18 ikasturteko unibertsitate-tasak eta 2016/17 ikasturtetik ordaintzeke zituztenak, Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritzak UPV/EHUri zuzenean emandako dirulaguntza baten bidez ordaindu dira.

Gainera, asilo-eskatzaileak eta errefuxiatuak unibertsitate-tasak ordaintzetik salbuetsita gera zitezen, aipatutako idazkaritzarekin eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarekin izandako elkarrizketen ondorioz, salbuespen hori jasota geratu zen [Hezkuntzako sailburuaren 2018ko ekainaren 20ko Aginduan. Horren bidez, 2018-2019 ikasturtean Euskal Herriko Unibertsitateko goi-mailako hezkuntzako zerbitzu publikoengatik ordaindu beharreko prezioak finkatzen dira, bai eta horien salbuespen eta murrizketez baliatzeko baldintzak ezarri ere.](#)

Bestalde, izapideak hasi dira Errusiatik, Siritatik, Saharatik, Venezuelatik eta Afganistandik datozen eta nazioarteko babes-egoeran dauden 16 pertsonak (7

emakumezko eta 9 gizonezko) UPV/EHUn 2018/19 ikasturtean graduiko ikasketak egin edo jarrai ditzaten.

Dirulaguntzak ostaturako, mantenerako, garraiorako eta materialetarako

UPV/EHUK ostatu eta mantenerako oinarrizko prestazio-laguntza eskaintzen die asiloa eskatzen duten –edo babestuta dauden– ikasleei, baldin eta egoera ekonomiko ahulean badaude. Prestazio hori, UPV/EHUK [Miguel de Unamuno Ikastetxe Nagusiarekin](#) eta Blas de Otero Unibertsitate Egoitzarekin –biak Bilbon ezarritako hitzarmen banari esker da posible, horien harira, ikasle hauen egonaldiaren % 50 besterik ez baita fakturatzten.

- Ostaturako. 2017/18 ikasturtean, Miguel de Unamuno Ikastetxe Nagusian bi ikasleek hartu dute ostatu eta batek, aldiz, Blas de Otero Unibertsitate Egoitzan.
- Mantenerako. UPV/EHUK baditu mantenu-gastuetarako dirulaguntzak –jantokirako txartelak– EA Eren barruan probintzia arteko joan-etorriak egin behar eta zeinek bere etxean bazkaltzeko modurik ez duten ikasleentzat. 2017/18 ikasturtean, programa honetara atxikitako ikasle batek Bizkaiko Campuseko mantenerako laguntza jaso du.
- Garraioa. Inoiz, ikasketak egin ahal izateko, ikasleek lurraldeen arteko joan-etorriak egin behar izaten dituzte EA Eren barruan. 2017/18 ikasturtean, UPV/EHUK bere gain hartu ditu, xede horretarako sortutako funtsaren bidez, bi ikasleren (emazteki 1 eta gizonezko 1) campusen arteko garraio-gastuak.
- Ikasketarako materiala. Liburuak, eskuliburuak, fotokopiak eta jarduera akademikoa behar bezala eramateko gainerako materiala erosteko gastuak ordaindu zaizkie asilo eske edota babesturik dauden ikasleei. Programara atxikitako 12 ikasleek jaso dute aipatutako prestazio hori.

Hizkuntza ikastaroak

EA Eko hizkuntza ofizialen (gaztelania eta euskara) jakite maila eskasa izaten da asilo-eskatzaileen edota babestuta dauden pertsonen kolektiboek izaten duten zailtasun nagusietako bat, are gehiago goi ikasketekin segitu nahi badute. UPV/EHUK hizkuntza-ikastaro trinkoak eskaintzen dizkie pertsona horiei, oztopo hori gainditzeko.

- Aurrez aurreko hizkuntza-ikastaroak. [UPV/EHUko Nazioarteko Harremanen eta Koordinazioko Errektoreordetzak](#) UPV/EHUra bisitan datozen truke-programetako (Erasmus, SICUE, Latinoamerika eta beste destino batzuk) ikasleentzat eskainitako ikastaroetara doan joateko aukera eskaintzen dio kolektibo horri.
- Errefuxiatuei zuzendutako gaztelania ikasteko online ikastaroak, [Europako Batzordeak errefuxiatuentzat duen online-ko hizkuntza-sostenguaren \(Online Linguistic Support, OLS\)](#) barruan. Ekimen horren bidez, Europar

Batasuneko estatu kideei lagundu nahi zaie, errefuxiatuen egungo krisiak eragindako migratzaileak zein haien hezkuntza eta prestakuntza sisteman integratzeko eta pertsona horien gaitasunak eta trebeziak behar bezala garatuko direla bermatzeko ahaleginetan. Horrela, pertsona horien heziketak aurrera egiteko aukera izango du, hala lanbide-heziketan nola goi mailako hezkuntzan, eta lan merkatuan txertatzeko aukera gehiago eta hobeak izango dituzte. Online-ko ikastaro horiek 2017/18 ikasturtean eskaini dira, bai eta 2018/19rako programatu ere [Bizkaiko Esperientzia Ikasgeletako](#) informatikako gelan, UPV/EHUko ikasle boluntarioen sostengu eta laguntzarekin.

Sareko lana

Espainiako Unibertsitateetako Errektoreen Konferentziaren (CRUE) Nazioartekotze eta Lankidetzaren sektore-batzordeko «GUL ekintzak errefuxiatuen populazioekin eta/edo asilo-eskatzaileekin» lantaldearekin lanean hasita gaude.

Gainera, asilo-eskatzaileak eta errefuxiatuak artatzearen arloko jardunbide egokien erreferentziazko unibertsitate gisa hartu du parte Alcalá de Henaresko Unibertsitatean (Madril) 2018ko martxoaren 16an egindako «Unibertsitateak eta Babesa» izeneko lehen topaketan. Jardunaldi horretan gai hauek jorratu ziren, besteak beste: ikasle errefuxiatuak eta/edo asilo-eskatzaileak hautatzeko betebeharrak; haien tituluen homologazioa edo baliozkotzea; harrera-erakundeekin egindako aliantzak eta Europako proiektuen formulazioa; gainera, errefuxiatuen harrerarekin lotutako beste unibertsitate eta erakunde batzuen esperientziak entzuteko aukera izan zen, gai horren errealitatearen eta haren ondorioen ulermena hobetzeko aukera izan zelarik.

Sentsibilizazioa eta eztabaida sustatzea

Hainbat erakusketa, jardunaldi eta mintegi egin dira nazioarteko babesaren eta giza eskubideen inguruko sentsibilizazioa eta eztabaida sustatzeko, UPV/EHUren hiru campusetan. Jarduera horietako asko hainbat erakunderekin eta gizarte-mugimendurekin elkarlanean antolatu dira. Jarraian zehazten dira.

Jarduera horien artean, nabarmentzekoa da [Nazio Batuen Errefuxiatuentzako Agentziarekin](#) (ACNUR) hasitako proiektua, Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Espainiako Agentziak (AECID) finantzatzen duena eta izenburu hau duena: [«Ez utzi inor atzean: Unibertsitatea babesarekin eta garapen](#)

[iraunkorreko helburuekin konprometituta»](#)).



Proiektu horrek, 2018an, bi jarduera hartu ditu barnean, bata sentsibilizaziokoa eta prestakuntza arlokoa bestea; zehatzago esanda, erakusketa ibiltari bat hiru campusetan, eta mintegi bat. Hirugarren ekintza, aurrez aurreko tailerra, 2019ko lehen sei hilekorako aurreikusten da.

1. ekintza: Erakusketa ibiltaria: «Ez utzi inor atzean: asiloa eta 2030 Agenda»

«Ez utzi inor atzean: asiloa eta 2030 Agenda» izenburuko erakusketa UPV/EHUko unibertsitate-erkidegoari zuzenduta zegoen eta parte-hartze interaktiboan oinarritutako dinamika bat eraiki nahi izan zuen, bisitariak lehen pertsonan inplikatzeko eta errefuxiatuen egoerari buruzko kontzientzia hartzeko prozesua sustatzeko xedez.

Erakusketa horretan –zeinak barnean hartu baitzuen «Babestu zaitez» izeneko esperientzia–, bisitariak ACNURek errefuxiatuak babesteko egiten duen lanean dituen erronken eta 2030 Agendaren Garapen Iraunkorreko Helburuen (GIH) arteko loturari buruz hausnartzeko aukera izan zuten. Erakusketaren helburua izan zen errefuxiatuen eskubideen aldeko borroka dakarren erantzukizun partekatua azpimarratzea, erantzukizun horrek ekintzara dei egiten baitigu guztioi.



Horretarako, ACNUReko kanpadenda bana ipini zen UPV/EHUko hiru campusetan, ACNUReko errefuxiatu-guneetan egoten direnen antzekoa. Kanpadendak ibilbide interaktibo baten azken etapa irudikatzen du eta diseinuaren xedea da, lehenik, bisitaria hurbildu ahal izatea munduan egunero milioika pertsona errefuxiatuak eta destokitutak bizi dituzten zailtasunetara (lehen zatia) eta, bigarrenik, esperientzia traumatikoen bizipenak jasotzea, hala nola bonbardaketa bat, edo errefuxiatu-eremu batera iristeak dakarren bizitza-aldaketa (bigarren zatia). Horretarako, errealitate birtualeko betaurrekoak eman zitzaizkien, Siriako bonbardaketa baten simulazioa eta Jordaniako Azraq errefuxiatu-eremuko harrera esperientziatu edo 'bizitzeko'.

Erakusketako materialei esker, ikus-entzunezko esperientzia hori dastatzeko aukera izan zen, euskaraz zein gaztelaniaz, UPV/EHUko hiru campusetan, honako egun hauetan:

- Bizkaiko Campusa, [Mikel Laboa plazan](#): 2018ko irailaren 24tik 28ra
- Arabako Campusa, [Letren Fakultatean](#): 2018ko urriaren 1etik 5era.
- Gipuzkoako Campusa, [Ignacio Maria Barriola zentroan](#): 2018ko urriaren 8tik 11ra

Hiru espazioetan mota askotako ikusleak izan ziren eta jendearen etorrera gorabeheratsua izan zen. Guztira, **421 bisitari** izan ditu aipatutako erakusketak (178 gizonezko eta 244 emazteki). Bai bisita kopuruaren eta bai erakusketa bisitatu zuten unibertsitate-erkidegoko pertsonen iritzien erregistroak jaso eta ebaluatu ondoren, esan daiteke erakusketak oso harrera positiboa izan zuela UPV/EHU, eta interesarekin, jakin-

minarekin eta gogoetarekin zerikusia zuten dinamikak sortzea lortu zela.



2. ekintza: Mintegia: «Ez utzi inor atzean. Unibertsitatea babesarekin eta garapen iraunkorreko helburuekin konprometituta»

Bigarren ekintza horren bidez honako hau bilatzen zen: edukietan, trebetasunetan eta balioetan prestatzen laguntzea, horretarako gune bat sortzearen bidez, bertan parte-hartzaileak Garapen Jasangarrirako 2030 Agendaren erronka globalen aurrean erantzunkide senti zitezten eta errefuxiatuen giza eskubideen sustapenean eta defentsan herritar kritikoak izateko konpromisoa har zezaten.

Horretarako, «Ez utzi inor atzean. Unibertsitatea babesarekin eta garapen iraunkorreko helburuekin konprometituta» izeneko mintegia antolatu zen, 2018ko urriaren 29an eta 30ean [Bilboko Hezkuntza Fakultatean](#). Mintegia bi saiotan garatu zen eta honako gai hau izan zen hizpide: egungo nazioarteko testuinguruan, pertsona errefuxiatuek eta destokituek bizi duten errealitatea, betiere ikuspegi kritiko eta eraldatzaile batetik eta 2030 Agendaren prozesuari arreta jarrita.

Mintegian 2030 Agendan adituak diren pertsonak hartu zuten parte hizlari gisa, bai eta asiloaren eta babesaren arlokoek ere. Parte hartu zuten hizlari ugarien artean, UPV/EHUko eta beste erakunde batzuetako adituak, gizarte-mugimenduetako ordezkariak eta UPV/EHUko errefuxiatuei arreta emateko programaren parte diren ikasleak izan ziren.

Azpimarratzekoa da mintegi honek arrakasta handia izan duela bertaratutako jende kopuruari eta eztabaidan izan zuten parte-hartzeari dagokienez. Guztira, 151 pertsona bertaratu ziren; (118 emazteki eta 33 gizonezko). Bildu zirenen artean, % 92 unibertsitate-erkidegoko kideak izan ziren, gehienak ikasleak, eta gainerako % 8 asiloaren eta babes-eskearen esparruan lan egiten duten gobernu kanpoko



erakundeekin loturak zituzten pertsonak izan ziren (CEAR eta Gurutze Gorria, beste batzuen artean).



Erabilitako dinamikak, batez ere mahai-inguruak, eztabaidarako eta

hausnarketarako espazioak sortzea erraztu zuen, ezinbestekoak ikasleengan, irakasleengan eta beste gainerako pertsona interesdunengan elkartasunerako eta mobilizaziorako jarrera indibidualak eta kolektiboak sortzeko, nazioarteko babesa behar duten edo jasotzen duten pertsonen eskubideen alde.

Gainera, Iraunkortasuneko Zuzendaritzak, UPV/EHUko Garapenerako Lankidetzaren Bulegoaren bidez, 2018an hainbat jarduera jarri ditu abian (erakusketak, jardunaldiak eta mintegiak) UPV/EHUko hiru campusetan, errefuxiatu eta asilo-eskatzailen inguruko egoerari eta pertsona horiek integratu behar diren buruzko jarrera solidario, kritiko eta parte-hartzaileak sustatzera bideratuta. Jarraian zehazten dira.

2018ko Jardunaldiak eta Mintegiak

Nazioarteko elkartasunaren erronkak. XIX. Mintegiaren amaiera saioa



Data: 2018ko abenduaren 18a
Tokia: Bilboko Ingeniaritza Eskola

[Mintegiaren informazioa](#)

Erakusketa: Begirada kontzientek



Data: 2018ko azaroaren 17tik
abenduaren 13ra
Tokia: Karlos Santamaria Zentroa

[Erakusketaren informazioa](#)

II. Ikastaroa: Giza eskubideak eta 2030 Agenda



Data: Urriak 15, 17, 22, 24 eta 29, eta azaroak 5
Tokia: Psikologia Fakultatea (Donostia)

[Ikastaroaren informazioa](#)

Aurretik deskribatutako UPV/EHUko asilo-eskatzaileei eta errefuxiatuei arreta ematea xede duen programako ekintzen garapena eta finantzaketa ahalbidetzeko, UPV/EHUko Iraunkortasuneko Zuzendaritzak jarraian zehazten diren honako ekarpen ekonomiko hauek ditu:

- UPV/EHUren funts ekonomikoa babesaren arloan. UPV/EHUk, [2015eko urriaren 1ean UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak](#) onetsitako erabakiaren bitartez, urtean 10.000 euroko funts ekonomikoa eratu zuen EAEn errefuxiatutako pertsonak artatzeko ekintzek eragindako salbuespenezko beharrianak estaltzeko eta unibertsitate-erkidegoa sentsibilizatzeko ekintzak aurrera eramateko.
- Eusko Jaurlaritzako Bake eta Bizikidetzako Idazkaritza Nagusiaren zuzeneko laguntza. [2017ko azaroaren 14an, Eusko Jaurlaritzak zuzeneko dirulaguntza bat ematea onartu zuen](#), 16.000 eurokoa, UPV/EHUko Berrikuntza, Gizarte Konpromiso eta Kulturgintzako Errektoreordetzari, hain zuzen ere, nazioarteko babes egoeran zeuden ikasleen 2017/18 ikasturteko unibertsitate-tasak (matrikula) eta, 2016/17 ikasturteko matrikulei zegokienez, artean ordaintzeke zegoen kopuru edo zenbatekoa ordaindu ahal izateko.
- UPV/EHUren eta Bilboko Udalaren arteko hitzarmena, UPV/EHUk ikasketak egiten ari diren atzerriko ikasleei, errefuxiatu gisa daudenei eta asilo-eskatzaileei laguntzeko. Hitzarmen horren helburua da ikasle atzerritarrei, asilo-eskatzaileei eta errefuxiatuei erraztasunak ematea UPV/EHUk graduoko ikasketak egin ditzaten, Bilbon ostatu eta/edo mantenuerako laguntzak ematearen bidez.
- UPV/EHUren Bizkaiko Campuseko ikastetxe nagusi eta egoitzekiko hitzarmenak. Bi hitzarmen ezarri ziren 2017an, Bizkaiko Campuseko ostatu-zentro bi hauen –zehazki, Miguel de Unamuno Ikastetxe Nagusia eta Blas de Otero Unibertsitate Egoitza– eta UPV/EHUren artean. Akordio horien indarrez, UPV/EHUk gradu bat egiten ari diren eta nazioarteko babes eskatu duten –edo haren onuradun diren– ikasleen egonaldiaren % 50 baino ez da fakturatzen.
- Letren Fakultatearen funts ekonomikoa. UPV/EHUko Letren Fakultateak, 2016. urtetik hasita, bere urteko aurrekontuaren %0,7 xedatzen du beharrezko material akademikoaren erosketari diruz laguntzera, nazioarteko babes egoeran dauden unibertsitateko ikasleek arlo horretan dituzten beharrianak asetzeko. 2017/ 2018 ikasturtean zenbateko hori 22.069,27 €koa izan da.

3.7. Hitzarmenak sustatzea eta iraunkortasunaren eta garapenerako lankidetzaren esparruan lan egiten duten entitateekiko lankidetzalana bistaratzea

3.7.1. Hitzarmenak

Azken urteotan, hitzarmenak sinatu ditugu EAeko eta EAetik kanpoko hainbat gizarte-erakunde eta entitaterekin. Hitzarmen horiek sinatzeari esker, Unibertsitate-Gizarte harremanak sendotu ditugu. Hitzarmen horien ondorioz, lankidetzak gauzatu ditugu irakaskuntza, prestakuntza eta ikerketa arloetako prestakuntza, sentsibilizazio eta trukaketa programetan. 2018. urtean, jarraian aipatzen ditugun hitzarmenak sinatu dira.

Beste erakunde publiko batzuekin sinatutako hitzarmenak

UPV/EHUren eta **Arabako Foru Aldundiaren** arteko lankidetzalana, Garapenerako Lankidetzalana (GUL) sustatzeko Arabako Campusean. Hitzarmen horren helburua da GUL proiektu eta jarduerak diruz laguntzeko 15.000 euroko ekarpena arautzea.



2017/18 ikasturtean, hitzarmen horri esker, 750 euroko lau beka eman zitzaizkien Gaztenpatia programako ikasleei, eta Kulturarteko II. Gaztenpatia Topaketa egin ahal izan zen. 2018/19 ikasturtean jarduerak garatzeko sinatutako hitzarmenak honako hauek ahalbidetuko ditu: UPV/EHUko Ikasleen I. Biltzarra antolatzea, iraunkortasunaren eta lankidetzaren esparruko prestakuntza garatzea eta Arabako Campusean 2030 Agendako GIHak sostengatzeko jarduerak zabaltea.

Lankidetzalana **Euskal Toki Erakundearen Lankidetzarako Elkartearen** (Euskal Fondoa) eta UPV/EHUren artean elkarrekin lan egiteko UPV/EHUko garapenerako lankidetzalana-proiektuetan Praktikak eta Gradu Amaierako Lanak (GRAL) egiteko programan.



Euskal Fondoak 15.000 euroko laguntza ekonomikoa ematen du, garapenerako lankidetzalana-proiektuetan Praktikak eta Gradu Amaierako Lanak egiten dituzten ikasleen gastuen parte bat ordaintzeko. Zehazki, 2017/18 ikasturtean, hitzarmen horren bidez 750na euroko 20 bidaia-poltsa bideratu ziren, programa horretara atxikitako ikasleentzat. 2018/19 ikasturterako sinatutako hitzarmenak laguntza horiek finantzatzen jarraitzea ahalbidetuko du.

UPV/EHUren eta **Bilboko Udalaren** arteko lankidetzaz hitzarmena, udalaren laguntzarako lehentasunezko herrialdeetan jatorria duten eta, UPV/EHUko ikasleak izanik, nazioarteko babesaren eskatzaile edo onuradun direnei Bilbon ostaturak eta mantentzea diruz laguntzeko.



2017/18 ikasturtean, honako hauek jaso dute 8.000 €-ko laguntza: Kolonbia, Bolivia, Ekuador eta Afganistandik etorritako 6 ikasleak (4 emakumezko eta 2 gizonezko, horietako bat ikasle errefuxiatua). 2018ko urrian sinatu zen 2018/19 ikasturterako hitzarmena.

IHOBE, Eusko Jaurlaritzako Ingurumenaren Kudeaketarako Sozietate Publikoa. IHOBE SA Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoaren eta UPV/EHUren arteko lankidetzarako marko-hitzarmena, XI. Legegintzaldiko Gobernu Programaren helburuak lortzen laguntzeko, eta, batez ere, 2030erako Euskadiren Iraunkortasunerako Hezkuntza Estrategiarekin lotura duten lan-ildoetan.



Kontsumoko Euskal Institutua. Kontsumobide. Lankidetzarako marko-hitzarmena, gizarte-erantzukizun, iraunkortasun, ezagutzaren transferentzia, prestakuntza eta balioetan oinarritutako hezkuntzaren arloan baterako ekimenak garatzeko.



Vitoria/Gasteizko Udala Lankidetzaz hitzarmena, Gasteizko Udaleko **Ingurumen Gaietarako Ikastegiaren** eta UPV/EHUren artean, Arabako Campuseko baratze ekologikoan prestakuntza-jarduerak egiteko



Leioako Ostalaritza Eskola. Lankidetzahitzarmena bidezko merkataritzarekin, kontsumo arduratsuekin eta elikaduraburujabetzarekin lotura duten ekimenak sustatzeko.



Euskal Herriko gizarte erakundeekin

- EAEko Garapenerako Gobernu Kanpoko hainbat Erakunderekin (GGKE) sinaturiko hitzarmenak. Horiei esker, garapenerako lankidetzaproiektuetan lan-praktikak eta Gradu Amaierako Lanak (GRAL) egiteko programa sendotzea lortu da. 12. taulan zehazten dira.

12. taula: EAEko GGKEekin 2017/18 ikasturtean kudeatutako hitzarmenak

UPV/EHUko ikastegia	EHko Lankidetzaren erakundea
Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea	Gasteizko Sahararren Elkarte
Ekonomia eta Enpresa Fakultatea	Euskal Fondoa - Euskal Toki Erakundearen Lankidetzarako Elkarte
Psikologia Fakultatea	Medicus Mundi Gipuzkoa

- Programa horren barruan, gure erkidegotik kanpoko erakundeekin ere hitzarmenak sinatu ditugu. 13. taulan zehazten dira.

13. taula: Atzerriko erakundeekin 2017/18 ikasturtean kudeatutako hitzarmenak

UPV/EHUko ikastegia	Atzerriko lankidetzaren erakundea	Herrialdea
Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea	TAU	Bolivia
Ekonomia eta Enpresa Fakultatea	Ochoch Hikeek elkarte zibila	Guatemala
Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea	'Sonríe y crece' gazteak	Dominikar Errepublika
Arkitekturako Goi Eskola Teknikoa	TECHO	Peru

3.7.2. Iraunkortasunaren eta garapenerako lankidetzaren arloan lan egiten duten entitateekin batera egiten dugun lana ikusgarri egitea

UPV/EHUko Iraunkortasuneko Zuzendaritzak, Iraunkortasunari eta Garapenerako Lankidetzari dagokienez UPV/EHUko unibertsitate komunitateari eskaintzen zaion zerbitzua den heinean, unibertsitate komunitatea jomuga duten hedatze eta

sentsibilizazio jarduerak antolatzen ditu, ekonomikoki txiroak diren herrialdetako errealitatea ezagut dezan. Horrez gain, gure inguruko gizartean ematen diren desorekak eta gure egunerokotasunak pertsonen eta lurraren osasunean duen eragina ikusgarri egin nahi ditu ere.

Ondorioz, funtsezkotzat jotzen du taldean lan egitera eta bakea, ekitatea, elkartasuna eta iraunkortasuna bezalako balioen inguruan hausnartzera eta aipatuak praktikan jartzera behartzen gaituzten jarduerak unibertsitatearen egunerokotasunean txertatzea. Jarraian, 2018an antolatutako (bakarka edo lankidetzan) jarduerak zehazten dira.

Paperik gabeko eguna



Data: 2018ko abenduak 14
Tokia: Gizarte eta Komunikazio Zientzien fakultatea. Leioa

[Informazio gehiago](#)

Emakumeak eta kooperazioa osasun arloan



Data: 2018ko abenduak 17
Tokia: Bizkaiko Esperientzia Gelak. Espainiako Bankua eraikinaren Erdiko patioa

[Informazio gehiago](#)

Unibertsitateko Hezkuntza Eraldatzailea Helburu Jardunaldia



Garapenerako Lankidetzaren inguruko Gradu Amaierako Lanen –GrAL– hausnarketa jardunaldia (esperientziak, ikaskuntzak, gomendioak eta helburuak)

Data: 2018ko azaroak 30
Tokia: Bilboko Ingeniaritza Eskola

[Informazio gehiago](#)

Poltsa edo bizia. Beste ekonomia bat posible da



Data: 2018ko urriak 1, 2, 3 | 8, 9 eta 10
Tokia: Paraninfoa. Zuzenbide Fakultatea (Donostia)

[Informazio gehiago](#)

Baserritik mundura



Elikadura-burujabetza eta nekazaritza ekologikoa

Data: 2018ko irailak 21

Tokia: Zubiria Etxeko Gradu Aretoa, Agirre Lehendakariaren etorbidea, 81 Sarriko-Bilbao.

[Informazio gehiago](#)

«Boluntariotza eta Garapenerako Lankidetz» erakusketa bibliografikoa



Data: 2018ko ekaina - iraila

Tokia: Bizkaiko Campuseko Biblioteka

[Informazio gehiago](#)

Hitzorduak



«Armagabetzea, desmobilizazioa eta birgizarteratzea Euskal kasuan: bideragarritasuna eta aukera»

Data: Apirilak 11

Tokia: Karlos Santamaria Zentroa

[Informazio gehiago](#)

Azkenik, nabarmentzekoa da [«Invisible Express»](#) izeneko **Film laburren lehiaketaren V. edizioaren** antolaketa. Jarduera hori urtero antolatzen dute, elkarlanean, UPV/EHUko Garapenerako Lankidetz Bulegoak eta [Kultura, Communication y Desarrollo \(KCD\) GKEak](#). Lehiaketa Zinema Ikusezinaren Nazioarteko Jaialdiaren «Film Sozialak» sailean kokatzen da eta UPV/EHUko ikasleek har dezakete parte, bakarka zein taldean.

Film laburretarako proposatutako gaia **«jarrera konplizea»** izan zen. Titulu horren bidez, 2030 Agendako 5. GIHaren –«genero-berdintasuna eta emakumeen eta nesken ahalduntzea lortzea»– aurrean dugun erantzukizunari buruz gogoeta egitea proposatu zitzaizen ikasleei.



2018ko edizio honetan –urriaren 2tik 10era bitartean garatu zen–, UPV/EHUko hiru campusetako 192 ikaslek eman zuten izena. Horietatik 114 emakumezkoak ziren eta 78 gizonezkoak. Azkenik, 24 obra argitaratu ziren. Lan horietan, oharkabean pasatzen diren eta jarrera matxistak iraunarazten laguntzen duten eguneroko hainbat ekintza jarri ziren zalantzan.

Honako hauek izan ziren, hurrenez hurren, 1.000 € eta 500 €ko saria jaso zuten film laburrak:

- Lehen sariaren irabazlea: [Itzarri](#)
- PUBLIKOAREN SARIAREN IRABAZLEA: [Conscius](#)



3.8. Nazio Batuen 2030 Agenda unibertsitateko jardueren eguneroko zereginetan txertatzea

2015eko irailean, [Nazio Batuen Erakundeko \(NBE\) Batzar Orokorrak Garapen Iraunkorrerako 2030 Agenda onartu zuen](#), pertsonen, planetaren eta oparotasunaren aldeko ekintza-plan bat, era berean, bake unibertsala sendotzea eta justiziaren zabalkundea bilatzen duena. Agenda hori 2030erako 17 Garapen Iraunkorreko Helburutan (GIH) eta 169 helmugatan zehazten da.

UPV/EHUK, beste erakunde batzuek bezala, ibilbide-orri bat aurkitu du GIHetan, unibertsitatearen lana planetaren eta pertsonen erronka handien ildo berean txertatzeko, 'Inor atzean utzi gabe'. Hala, 2018ko urte honetan, hausnarketa-prozesu parte-hartzaile bat jarri da abian, UPV/EHUK 2030 Agendari gaur egiten dion eta egin diezaiokeen ekarpenaren inguruan, estrategia bat lantzeko azken xedearekin.

2018ko urriaren 24an eta 25ean egin zen, Arabako eta Bizkaiko campusetan, hurrenez hurren, **UPV/EHUko Ikasleen I. Biltzarra, «Gure Gradu Amaierako Lanek mundua eraldatzeko balio dute»** izenburupean. Ekimen horren bidez –erreferentzia izan nahi luke datozen ikasturteetarako–, 2030 Agendako Garapen Iraunkorreko Helburuen inguruan egindako ikerketa-lanak ikusarazi eta aitortu nahi izan ziren.




Biltzarra bi egunetan egin zen. Lehenengoa 2018ko urriaren 24an egin zen Arabako Campuseko Farmazia Fakultatean eta 2030 Agendaren eta UPV/EHUK hura lortzeko egindako ekarpenaren inguruko hainbat hitzaldi eskaini ziren bertan. Komunikazio horietan, Unesco Etxearekin, Arabako Foru Aldundiarekin eta UPV/EHU berarekin lotura zuten hainbat adituk hartu zuten parte.

Biltzarra bi egunetan egin zen. Lehenengoa 2018ko urriaren 24an egin zen **Arabako Campuseko Farmazia Fakultatean** eta 2030 Agendaren eta UPV/EHUK hura lortzeko egindako ekarpenaren inguruko hainbat hitzaldi eskaini ziren bertan. Komunikazio horietan, Unesco Etxearekin, Arabako Foru Aldundiarekin eta UPV/EHU berarekin lotura zuten hainbat adituk hartu zuten parte.

Bigarren eguneko saioan –urriaren 25ean egin zen, UPV/EHUko Bizkaiko Campuseko hainbat ikastegitan–, biltzarrean parte hartu zuten ikasleen Gradu Amaierako Lanak (GRAL) aurkeztu ziren, 2030 Agendako **5 ardatz tematikoen** arabera sailkatuta:

- **PERTSONAK.** Pobreziaren eta gosearen forma guztiei amaiera emateko eta duintasuna eta berdintasuna bermatzeko ekimenak
- **PLANETA.** Gure planetako baliabide naturalak babesteko eta klima-aldaketari galga jartzeko ekimenak
- **OPAROTASUNA.** Izadiarekin harmonian egongo diren bizitza oparo eta asegarriak segurtatzeko ekimenak.
- **BAKEA.** Bakea, justizia eta gizarte inklusiboa sustatzeko ekimenak
- **ALIA NTZAK.** Aliantza global sendo baten bitartez agenda inplementatzeko ekimenak.



16. irudia: Biltzarraren I. edizioan parte hartu duten ikasleak, sexuaren (goian ezkerretara), jakintza-arloaren (goian eskuinetara) eta egin duten GRALa kokatuta dagoen ardatz tematikoaren (behean) arabera banakatuta.

Guztira, 56 ikaslek aurkeztu zituzten beren lanak. Aurkezpenak hiru hizkuntzatan egin ziren: 24 euskaraz, 31 gaztelaniaz eta 1 ingelesez. 5. irudian, sexuaren, jakintza-adarraren eta ardatzaren arabera banakatuta agertzen dira, hurrenez hurren. 56 ikasleetatik, 33 emakumezkoak izan ziren, eta 23 gizona, eta jakintza-arlo guztiak egon ziren ordezkatuta: Gizarte eta Lege Zientziak (19), Ingeniaritza eta Arkitektura (15), Osasun Zientziak (12), Zientziak (7) eta Arteak eta Gizarte Zientziak (3). Gradu Amaierako Lanen ardatz tematikoei dagokienez, nabarmentzekoa da lanen % 46 Pertsonak ardatzean kokatu zirela (26), % 23,2 Oparotasunean (13), % 23,2 Planetan (13) eta % 7,6 Bakea eta Aliantzak ardatzetan (4).

Batzorde Zientifikoak ondoko irizpide hauetan oinarrituta ebaluatu zituen 2030 Agendako 4 ardatz tematikotan (Pertsonak, Planeta, Oparotasuna eta Bakea eta Aliantzak) aurkeztu eta sailkatutako GRAL proposamenak:

- biltzarraren gaiarekiko egokitzapena
- planteamenduen zorrotasuna eta zuzentasuna eta,
- proposamenaren originaltasuna.

Berrikuntza, Gizarte Konpromiso eta Kulturgintzako Errektoreordetzak gradu amaierako zortzi lan onenak saritu zituen eta 300 €ko sari bana eman zuen ardatz bakoitzeko GRAL onenari eta 100 €ko sari bana ardatz bakoitzeko 2. GRAL onenari. Jarraian, saritutako ikasleen eta lanen zehaztapenak ematen dira.

<p>PERTSONAK esparrua</p> <ul style="list-style-type: none"> • 1. SARIA. <i>Genero indarkeriaren prebentziorako osasun-hezkuntza programa baten diseinua nerabeentzako.</i> Olatz Sarasola Ugalde. Erizaintzako gradua. • 2. SARIA. <i>Emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko politika publikoen ebaluagarritasuna termino kriminologikoetan.</i> Oihane Vergara Puello. Kriminologiako gradua.
<p>PLANETA esparrua</p> <ul style="list-style-type: none"> • 1. SARIA. <i>Proceso de mecanizado de superaleaciones: la viabilidad de la refrigeración CryoMQL.</i> Ane Cortina Burón. Industria Teknologiaren Ingeniaritzako Gradua. • 2. SARIA. <i>Evaluación de la situación medioambiental del Hospital Universitario Basurto (Osakidetza).</i> Fernando Rico Alonso. Industria kimikaren ingeniaritzako gradua.
<p>BAKEA-ALIANTZAK esparrua</p> <ul style="list-style-type: none"> • 1. SARIA. <i>Proyecto de Remodelación para una identidad en el Parque Doctor Areilza, Portugalete, Bizkaia.</i> Uxue Castrillo Gomez. Sorkuntza eta Diseinuko Gradua. • 2. SARIA. <i>Renovación de la ex-penitenciaria de Suchitoto.</i> Paz Gonzalez de la Torre. Arkitekturako Gradua.

OPAROTASUN esparrua

- **1. SARIA.** [Reordenación del barrio de Burtzeña y Edificios Centrales](#). Josu Gómez Ruiz. Arkitekturako Gradua.
- **2. SARIA.** *Impacto económico del dietista-nutricionista en la sanidad*. Aitor Trabanco Llano. Giza Nutrizioko eta Dietetikako gradua.



Ikusten den bezala, saria eraman duten ikasleek ikasi dituzten graduak mota askotakoak izan dira eta bai euskaraz eta bai erdaraz defendatu ziren lanei eman zitzaizkien sariak.

ESKER ONA

UPV/EHUko Iraunkortasuneko Zuzendaritzatik, gure eskerrik zintzoena adierazi nahi diegu memoria honetan jasotako jarduera guztiak antolatu ahal izateko eskuzabaltasun osoz beren denboraren zati bat eskaini diguten pertsona guztiei, beren babesik gabe ezinezkoa bailitzateke egin dugun guztia egitea.

Mila esker guztioi.

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

ERANSKINAK

1. ERANSKINA: Campus Bizia Lab programako proiektuetatik eratorritako argitalpenak

- Azanza, N. (2018). Inventariado, clasificación y reordenamiento del almacén de reactivos químicos del departamento de ingeniería química y del medio ambiente. *I Congreso de estudiantes de la UPV/EHU - ESPACIO PLANETA Y PERSONAS*. Bilbao.
- Barandiaran, M., Barrenetxea, M., Cardona, A., González, X., & Mijangos, J. (2018). La opinión del alumnado sobre los ODS: oportunidad para el desarrollo de competencias transversales en los currículos universitarios. *IV Congreso Internacional de Estudios del Desarrollo*. Córdoba.
- Barandiaran, M., Barrenetxea, M., Cardona, A., González, X., & Mijangos, J. (2018). Acción educativa para implicar al alumnado en la consecución de los Objetivos de Desarrollo Sostenible. *Congreso Internacional de docencia universitaria*. Girona.
- Barandiaran, M., Barrenetxea, M., Cardona, A., González, X., & Mijangos, J. (2018). Formar personas comprometidas con la sociedad en la universidad. La percepción del alumnado respecto a los ODS. *Bestelako Unibertsitatea/ Universidad otra* (págs. 19-28). Bilbao: UPV/EHU.
- De la Peña Esteban, J. I., & Peña-Miguel, N. (2018). Rethinking social welfare in Spain: A basic pension for everyone. *Ekonomika Istrazivanja, Economic Research*, *31*(1), 1737-1757. doi: <https://doi.org/10.1080/1331677X.2018.1480402>
- De la Peña Esteban, J., & Peña-Miguel, N. (2018). A basic social pension for everyone? *8th International Conference on Mathematical and Statistical Methods for Actuarial Sciences and Finance*. Madrid. Universidad Carlos III - Spain.
- De la Peña Esteban, J., & Peña-Miguel, N. (2018). A basic social pension for everyone? . En J. I. De la Peña Esteban, & N. Peña-Miguel, *Mathematical and Statistical Methods for Actuarial Sciences and Finance*. (págs. 305-309). London (UK): Springer.
- De la Peña Esteban, J., & Peña-Miguel, N. (2018). New accounting information system: an application for a basic social benefit in Spain. *Spanish Accounting Review*, *21*(1), 28-37. doi:<https://doi.org/10.1016/j.rcsar.2017.07.002>
- De la Peña Esteban, J., Fernández Ramos, M., & Peña-Miguel, N. (2018). A coverage factor for managing elderly pension benefits. . *31st International Congress of Actuaries*. Berlín- Germany.

- De la Peña Esteban, J., Fernández-Ramos, M., Herrera, A., & Peña-Miguel, N. (2018). Long Term Care pension benefits coverage via conversion factor based on different mortality rates: more money as age goes on. *Interciencia Journal*, 43(1), 9-16.
- Erauskin, A., & al. (2018). ¿Cuáles son los impactos ambientales y sociales de la actividad académica? El caso de la Universidad del País Vasco (UPV/EHU). *IV Congreso Internacional de Estudios de Desarrollo*. Córdoba.
- Etxano, I., & al. (2018). Impactos ambientales y sociales ligados a la actividad universitaria: el caso de la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)". Ciudad de Puebla. *15th Conference of the International Society for Ecological Economics*. Ciudad de Puebla (México).
- Fernández-Ramos, M., De la Peña Esteban, J., Peña-Miguel, N., Herrera, A., & Iturricastillo, I. (2018). Helping long term care coverage via differential on mortality? . En M. C. Fernández-Ramos, J. I. De la Peña Esteban, N. Peña-Miguel, A. T. Herrera, & I. Iturricastillo, *Mathematical and Statistical Methods for Actuarial Sciences and Finance*. (págs. 345-349). London (UK): Springer.
- García, O., del Río, M., Arcelus, G., Torres, Y., González Alriols, M., & Ulazia, A. (2018). Efficient mini wind energy generation in urban environments. *3rd International Conference on Green Energy Technology (ICGET 2018)*. Amsterdam.
- Montes Bageneta, I., Arrasate Gil, S., Anakabe Iturriaga, E., Gonzalez-Díaz, H., Merino Maestre, M., Akesolo Muguruza, U., & Lopez Cadahia, S. (2018). Implementing sustainable development skills in teaching organic chemistry laboratory. *5th Edition of EuroSciCon Conference on Environmental Science and Engineering*, 7, pág. 26. Budapest (Hungary).
- Montes, I., Arrasate, S., Anakabe, E., Merino, M., Akesolo, U., & López, S. (2018). Sustainability Transformation in Teaching Organic Chemistry Laboratory at University of the Basque Country. *MOL2NET, International Conference Series on Multidisciplinary Sciences*, (págs. 1-2). Bilbao.
- O. Pereira, G. U. (2019). Process performance and life cycle assesment of friction drilling on dual-phase steel. *Journal of Cleaner Production*, 1147-1156.
- Ortega Lasue, U., Atxurra, A., Ortuzar, A., Uskola, A., & Díez, J. (2018). Poster. *NZ3T. Natur Zientzien III. Topaketa: Sinbiosian*. Vitoria-Gasteiz: Udako Euskal Unibertsitatea.
- Ortega Lasuen, U., Achurra Ahumada, A., Arritokieta Ortuzar, A., Uskola, A., & Díez, J. (2018). Primeros pasos hacia la Transición Energética en la Facultad de Educación de Bilbao (UPV/EHU). Diagnóstico de las actitudes y de los conocimientos de la comunidad universitaria y de los consumos energéticos de

la facultad. **XII Seminario de Investigación en Educación Ambiental y Educación para el Desarrollo Sostenible** (págs. 21-22). Valsain (Segovia): CENEAM.

Ortega Lasuen, U., Atxurra, A., Ortuzar, A., Uskola, A., & Díez, J. (2018). Percepciones, conocimientos e intervenciones educativas hacia la transición energética en la Facultad de Educación de Bilbao (UPV/EHU). **IV CONGRESO INTERNACIONAL DE ESTUDIOS DEL DESARROLLO** (pág. 66). Córdoba: Universidad de Loyola.

Ortega Lasuen, U., Ortuzar, A., Uskola, A., & Díez, J. (2018). Comunidad transdisciplinar hacia la transición energética en la escuela universitaria de magisterio de Bilbao (UPV/EHU). **6th International Congress of Educational Sciences and Development** (pág. 212). Setubal: Univ. De Granada.

Peña-Miguel, N., & De la Peña Esteban, J. (2018). Inequality on Long term care: Adjustment of pensions via mortality ratio. **15th International Conference Developments in Economic Theory and Policy**. Bilbao.

Peña-Miguel, N., Corral-Lage, J., Mata Galíndez, A., & De la Peña Esteban, J. (2018). Learning by playing sustainable development. **15th International Conference Developments in Economic Theory and Policy**. Bilbao.

Peña-Miguel, N., De la Peña Esteban, J., & Fernández-Ramos, M. (2018). Inequality on elderly: Basic benefit for pensioners. **15th International Conference Developments in Economic Theory and Policy**. Bilbao.

Peña-Miguel, N., De la Peña Esteban, J., & Fernández-Ramos, M. (2018). Inequality on pensions: Mixed funded model for zero pillar in Spain. **15th International Conference Developments in Economic Theory and Policy**. Bilbao.

Peña-Miguel, N., Fernández-Ramos, M., & De la Peña Esteban, J. (2018). A minimum pension for older people via expenses rate. En N. Peña-Miguel, M. C. Fernández-Ramos, & J. I. De la Peña Esteban, **Mathematical and Statistical Methods for Actuarial Sciences and Finance**. (págs. 489-493). London (UK): Springer.

Pizarro, J. J. (2018). Rituales Colectivos y Emociones de Auto-trascendencia. **Jornadas de Seguimiento de Tesis**. Donostia / San Sebastián.

Ramón, I., Amurrio, M., Díaz-Tena, E., Encinas, M., Gómez de Balugera, Z., Gutierrez, J., Gallastegui, G. (2018). Aprovechamiento de recursos: compra responsable y sostenible de reactivos químicos. **Revista del Congreso Internacional de Docencia Universitaria e Innovación (CIDUI)**. Girona.

2. ERANSKINA: Garapenerako Unibertsitate Lankidetzako proiektuetatik eratorritako argitalpenak

- Gina, E., Puente, A., Gracia, M., Ubillos, S., Gonzalez, J.L. & Nieto, S. (2018). Women in warfare: The role of discrimination and humiliaton in a culture war. International Association for Cross-Cultural Psychology Congress-era aurkeztutako komunikazioa. Canada. <https://iaccpconference.com>
- Gina, E., Puente, A., Gracia, M., Ubillos, S., Gonzalez, J.L. & Nieto, S. (2018). Women in warfare: The effectiveness of a cultural specific intervention in victims silenced by the war: An Emotion Regulation perspective. *International Association for Cross-Cultural Psychology Congress*-era aurkeztutako komunikazioa. Canadá. <https://iaccpconference.com/>
- Ingeniería Sin Fronteras – Mugarik Gabeko Ingeniaritza (ISF-MGI) & Lankidetzeta eta Garapenerako Zabalketa Elkarte (2016). Testuinguruaren azterketa eta uraren problematika. *Cuaderno ISF-MGI*, 01, 1-4.
- Ingeniería Sin Fronteras – Mugarik Gabeko Ingeniaritza (ISF-MGI) & Lankidetzeta eta Garapenerako Zabalketa Elkarte (2016). Ura, saneamendua eta erkidego-antolakuntza sendotua. *Cuaderno ISF-MGI*, 02, 1-4.
- Insúa, P. & González, S. (2016). Nerabeentzako gizarte-gaitasunen tailerra. Gizarte-eta hezkuntza-egoera zaurgarrian dauden ikasleen irakaskuntza ertainetako irakasleentzako proposamena. Donostia, Osasun Ekintza.
- Puente, A., Gracia, M., Ubillos, S., Arias, G.M., Ubillos, S., Gonzalez, J.L. & Nieto, S. (2018). Indarkeria politikoaren eragina Kolonbiako biktimizazio anitzeko emakumezkoen osasunean. Poster hau hona aurkeztu zen: *Osasun arloko Esku-hartze eta Ikerketarako Nazioarteko II Biltzarra*. <https://formacionasunivep.com/lliciis/>
- Ubillos, S., Puente, A., Arias, G.M., Ubillos, S., Gonzalez, J.L., Gracia, M., & Nieto, S. (2018). Barkamena eta indarkeriari aurre egitea Kolonbian bakea eraikitzekeo prozesu gisa. Poster hau hona aurkeztu zen: *Osasun arloko Esku-hartze eta Ikerketarako Nazioarteko II Biltzarra*. <https://formacionasunivep.com/lliciis/>

3. ERANSKINA: UPV/EHUren prentsa oharrak

- 2018/05/21
Ez utzi platerean janaririk, eraman ezazu!»«
Erreportajea. Campusa
- 2018/05/24
«[UPV/EHUko mila ikaslek baino gehiagok lankidetzaz egiten bukatzen dituzte ikasketak](#)»
Albisteak. Campusa
- 2018/07/13
«[UPV/EHU matrikulatutako pertsona babestuak salbuetsita daude tasak ordaintzetik](#)»
Albisteak. Campusa
- 2018/07/23
«[UPV/EHUK 18 proiektu jarri ditu abian iraunkortasuna hobetzeko](#)»
Albisteak. Campusa
- 2018/09/20
«[Nola mugitzen da unibertsitatea?](#)»
Ikerketa Campusa
- 2018/10/16
«[Bilboko Udalak eta UPV/EHUK atzerriko ikasleei bekak eskaintzeko akordioa berriro dute bosgarren urtez](#)»
Albisteak. Campusa
- 2018/10/26
«[UPV/EHUko ikasleen I. Biltzarrak garapen iraungarriari buruzko zortzi GRAL saritu ditu](#)»
Albisteak. Campusa
- 2018/10/29
Errefuxiatuen eskubideak. [Mintegia: 'Ez utzi inor atzean'](#), UPV/EHU. 15:00
Leioa-Erandio
Ekitaldia. Campusa
- 2018/12/14
[Paperik gabeko eguna](#). Trakamatrakaren erakusketa eta kontzertuak. 11:00
Leioa-Erandio
Ekitaldia. Campusa